

TOKIKOM

2020ko apirila | 202. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Lortuko dugu!





STIHL

2020KO UDABERRIAREN ESKAINTZAK

NATURAREKIN MATEMINDUTA DAUDENENTZAT


* Eskaintzak, 2020ko ekainaren 30era arte



BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 📞 688 633 197
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com

-  **4 Eretxiak**
-  **5 Gutunak**
-  **6 Laburrak eta albisteak**
-  **10 Hezkuntza**
-  **12 Berbalagun... Bideo deiak**
-  **14 Gurena zahar-etxea**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Garbiketa... Baires enpresa**
-  **20 Elkartasuna**
-  **24 Laura Amella, erizaina**
-  **26 Nerea Elexpuru, Aurregoiti jatetxea**
-  **28 Txorierritarrak munduan... Amaia Agirre, EEBB**
-  **30 Patxi Kooperatiba, berrikuntza DNAn**
-  **31 Merkataritza... Carrefour eta Artile Artean**
-  **34 Lehen sektorea... Baserritarrak, urduri**
-  **35 Aikorrizketa... Whatsappela buruan**
-  **36 Mixerabliak taldea**
-  **37 Ispiluan... "Egun on, printze eta printzesak"**
-  **38 Denborapasa**



10 Hezkuntza



24 Laura Amella, erizaina



31 Merkataritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Sara Gandara, Erika Pereda, Idoia Andres

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Txikienaren indarra

Martxoaren hasieran koronabirusari behar besteko inportantziarik ematen ez zion horietakoa nintzela aitortu behar dut. *Gripe soil bat da*, esaten nion nire buruari, baita iritzia eskatzen zidan edonori ere. Tamalez, orain, denok dakigu oker nintzela.

Orduan, baina, nork pentsatu zezakeen gure bizitzeko era goitik behera aldatuko zela? Nork pentsatu behar zuen mundu mailako edozein kiroletako jarduna bertan behera geldituko zela? Nork esan behar zuen Olinpiar Jokoak ere atzeratuko zituztela? Sinesgaitza benetan! Eta dena, mikroorganismo txikiak eragindako krisialdiarengatik. Izan ere, agian ez zitzaigun horren arrotza suertatuko horrelako krisialdi bat ulertzea tartean, esaterako, interes ekonomiko bat egongo balitz. Baina begi bistan ikusten ez dugun zerbaitengatik? Batek daki.

Alarma egoera ezarri denetik hamaika hausnarketa egin ditut. Suposatzen dut ez naizela bakarrik izango, ordu gehiegi ditugu-eta pentsatzeko. Eta konturatu naiz orain arte edo, hobe esanda, kontrolatzen ez dugun gaixotasun hau gure bizitzetara iritsi den arte, erabateko askatasunean bizi izan garela (eta gu konturatu gabe edo behar zuen garrantzia eman gabe). Aske izan gara uneoro edozer gauza egiteko: bidaia bat, afari bat, pertsonak ezagutu... Gauza horiek guztiak gabe gelditu gara egun batetik bestera. Gure osasuna jokoan dago, eta beldurak indar handia dauka. Handiegia. Hobe da zuhurtziaz jokatzeko gehiegi arriskatzeko baino. Badaezpada.

Baina hemendik aurrera, zer? Ohituta egon gara nahi izan duguna egitera, baina orain dena aldatu da. Aurrerantzean ezer ez da izango garai batean bezala.



SARA GANDARA
Kazetaria

Daukagun beldurak edozer gauza egiteko baldintzatuko gaitu. Ez dakit, jendea ukitu, igogailuko botoia sakatu... Etxean egotera behartu gaituzte, eta okerrenera da ez duela ematen krisialdi hau kontrolatuta dagoenik. Luze joko duela egunez egun barnerratzten joan gara, baina etorkizun hurbilean, zer? Hobe galdera askorik ez egitea eta oraina bizitzea. Behintzat, koronabirusak hori ere irakatsi dit. Zorionekoa ni.

Bat-batean tele-eskolak ditugu. Jadanik ikasleak ez daude eskolako geletan eta urrutitik egiten dugu lan, edo etxeko lanak bidaltzen ditugu, ez dakit. Hezkuntza-sistemak ezarritako helburuak berdinak dira eta bete behar ditugu, antzezleku berri batetan eta pertsonaia berriekin: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.

Kuriositatez, EUSTATen begiratu dut ia zeozer zegoen gai honi buruz. Titular bat topatu dut, 2020ko martxokoa hain zuzen: "Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak konektatuta daude: etxean % 91k Internet dute". Ondo, hamar ikasle bati ez zaizkio etxekolanak iristen. Eta jarraian: herri-tarren % 80,2k Internet erabiltzen du

Konektibitatea



ERIKA PEREDA
Andereñoa eta kazetaria

eta % 78,3k ordenagailua dauka. Aiba! Ez dira hamarretik bat, hamarretik bi baizik. Hobe irakurtzen jarraitzen ez badut, baina ezin dut gaia burutik kendu: itxialdia, IKTak, eskolako material falta, familien egoera bereziak, gaixo dauden senideak... Eta non dago eskolatan landu behar dugun funtzio konpentsatzailea? Horixe bera helburu garrantzitsuenetako bat da eta.

Beste esparru eta enpresa batzuetan gertatu den bezala, ordu eta egun gutxian sistema berri bat sortzeko gai izan gara irakasleok. Horrexegatik ziur nago hurrengo ikasturtean ikasleen arteko ezberdintasunak leuntzeko ere gai izango garela, orduan bai, pantailarik gabe, aurrez aurre konektatuko garelako.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zerbitzu bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunene atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Bakardadean ahuleziak irensten gaitu; kontrara, batasunean aurkitzen dugu indarra

Azken egunak luzeak izaten ari dira zinez, aldakorra den tunel honen amaiera zehaztu gabe dago, baina hasieran osasun arazo bezala aurkeztu zitzaigunaren gordintasuna ikustera iristen ari gara egunek aurrera egin ahal. Egoeraren balorazio azkar bat eginez gero, krisi honen pisua langile klasearen bizkar gainera etortzea da aurreikusgarriena.

Hori dela eta, erasoaldia pairatzen ari diren kolektiboek zuzendutako kanpaina bat martxan jartzea erabaki dugu Gazte Koordinadora Sozialistatik, baliabideen kolektibizazioa mahaigaineratu eta ahal den neurrian gure aletxoak jartzeko asmoz. Dinamikak jazarpen polizialaren arloari erantzutea eta eskualde mailako testigantzak jasotzea du helburu. Batetik, kolektibo zaurgarriei laguntza emateko asmoz edo beharrianak bultzatuta kalera irten eta poliziak hartutako neurrigabekeriak



salatu eta horietatik babesteko jakintza eta mekanismoak luzatzea litzateke asmoa. Bestetik testigantzak jasotzeko bide bat ireki dugu, horiek publikoki salatzeo helburuarekin, anonimotasuna bermatu-ko delarik behar izanez gero.

Idazteko telefono bat (695 716 830) eta posta elektronikoko helbide bat (salbuespentxorierrri@gmail.com) jarri ditugu

baliabideen beharra duen edonor gurekin harremanetan ipini dadin. Hori eginda, bere kasuaren jarraipen bat egin eta ahal den neurrian pertsona horrekin batera irtentzide posibleak pentsatu eta aurrera eramatea litzateke prozedura.

Gehiago luzatu gabe, batetik eskualdeko eragile, gazte asanblada eta elkarte orori luzatzen diogu dinamikari zabalpe- na eman eta bertan parte hartzeko gon- bita, egoera honetan ezinbestekoa dela- ko gure arteko zubiak eraikitzea, ahalik eta gaitasun handienak izateko. Bestetik, egoera lazgarri hau bizitzera kondenatuta dagoen orori besarkada beroena. Gogo- rrena etortzeaz dago eta antolatzen has- tea dagokigu. Bidean ikusiko dugu elkar.

BURGESIAREN OFENTSIBA GELDITU!

Arrate Gaztelu Agirre eta
Jon Mikel Dominguez Petralanda

Salbuespen egoeraren ondorioak la- tzak izaten ari dira gizarteko alor guztie- tan, eta hezkuntza esparrua ez da salbues- pena. Ikasle on ikasketa prozesua hankaz gora jarri da, eta ikas-baldintzen okertzea nabaria izan da. Gainera, bizi dugun egoe- ra nahasi honetan, agintari politikoak za- baltzen dituzten erabakiak egunez egun aldatzen dira eta egia ezagutu baino zu- rrumurruak besterik ez ditugu jasotzen.

Beste behin ere, langileria izaten ari da salbuespen egoera honen kaltetu nagusia eta, horregatik, ikasleriaren interesen de- fentsa helburu duen programa abiarazi du Ikasle Abertzaleak antolakundeak, egoe- rari denon artean aurre egiteko.

Programa hau Espainiako, EAEko eta Nafarroako agintariei egiten zaizkien sei exijentziaz osatuta dago, eta online pla- naren derrigortasuna eta ebaluazio meka- nismoak ikasle on baldintzetara egokitzea (etxe askotan honen jarraipen egoki bat

Ondorioak ez ditzala langile klaseak ordaindu!

egiteko egon daitezkeen zailtasunak tar- teko), azken lauhileko (unibertsitatearen kasuan)/hiruhileko (bigarren hezkuntza- renean) honetako gastuak bueltatzea, eta Lanbide Heziketa dualeko ikasleek solda- ta jasotzen dutela bermatzea bezalako neurriak biltzen ditu. Gure kasuan inkesta baten zabalpenari ekin diogu, eskualdeko egoera ezagutu eta aukera posibleak mar- txan jartzeko asmoz.

Unibertsitateko Indar Batasunak, bes- talde, Ikasle Babes Sarearen dinamika jarri du martxan. Apunteen kolektibizazioarako plataforma (unibertsitateko gradu ezber- dinetako apunteak bildu eta jendearen esku jarriko dituen), eta Laguntza Aka-

demikoak (bereziki bigarren hezkuntza- ko ikasleei zuzendutakoa, edozein ikas- gairekin laguntza behar duten ikasleak laguntza hori emateko prest dauden bo- luntarioekin kontaktuan jarriko dituen) osatutako planteamendua litzateke hona- koa, eta kontaktua uibnazonala@gmail. com korreo bitartez egingo litzateke.

Dinamika horien jarraipen eta zabal- pena egiteko eskatu nahiko genioke txo- rrierritarrei, guraso, ikasle zein irakasleei, baita gurekin kontaktuan jartzeko gonbi- ta luzatu ere.

Ane Barcena Guarrotxena

Sondikako Udalak #SondikaGara ataria sortu du



#SondikaGara atarian (www.sondikagara.eus), pandemiari lotutako informazioa eta udal-zerbitzuak batu dira. Gainera, bertan jasotzen den informazioa Facebook gizarte-sarearen eta Telegram komunikazio-kanalaren bidez ere zabalduko da. "Ez dakigu etorkizuna nolakoa izango den; beraz, teknologikoki prestatu behar gara, ahalik eta informazio gehien emateko eta, birtualki bada ere, jarduerak

berreskuratzeko", esan du Xabier Zubiaur Sondikako alkateak.

Atarian zenbait atal daude. #BabesleakGara atalean, esaterako, sondikoztarrek laguntzei buruzko informazioa eskuratu ahal dute, hala nola udal-laguntzak eta lurralde-laguntzak. Era berean, informazioa eskaintzen da hainbat talderen zat, genero-indarkeria jasotzen duten emakumeak kasu, eta adin-tarte guztiei

zuzendutako laguntza psikologikoaren zerbitzuen berri ematen da.

#MerkataritzaGara atalean, ostalarien-tzako, dendariantzako eta enpresetarako laguntzak batu dira. Gainera, merkataritza-sektoreari webgunea erabiltzeko gonbidapena egiten zaio, horretan euren produktuak eta zerbitzuak eskaini ditzaten. Merkataritza bultzatzeko sortutako ekimenak ere jaso dira; BBKren #kreoenti, tartean. Horren harira, Zubiarek adierazi du zenbait ekimen aztertzen dabiltzela herriko dendak sustatzeko, adibidez, laguntza zuzenak eta bonu-kanpainak. "Horrezaz gainera, merkataritza- eta ostalaritza-produktuak eta zerbitzuak bultzatzeko edota erosteko gunea sortu behar bada, hori ere haiekin aztertuko dugu".

Bestalde, pandemian finkatu diren zerbitzuak jaso dira atarian –Ludoteka eta Gaztetxea, esate baterako–, eta #KirolaGara eta #KulturaGara atalak sortu dira. #GizarteEkintzak atala udal-joskintza ikastaroan izan du oinarria. Orratzaren Klubeko jostunek 1.000 oihalezko maskara egin dituzte eta, besteak beste, osasun-langileen eta zahar-etxeko langileen artean banatu dituzte. Partikularrentzako maskarak ere egin dituzte, eta batzuk herriko saltokietan utzi dituzte herritarrek har ditzaten. Gorondagane eskolako gurasoen elkar-teak eta Mankomunitatearen zerbitzuek ere euren atala dute #SondikaGara atarian.

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txoriemendi etortidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Alaia

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talleri, 5
48170 ZAMUDIO
94 485 05 85

**HARATEGIA
ALBERTO**

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

150.000 euro, Derioko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzeko



Derioko Udalak neurri-sorta bat onartu du, COVID-19ak sortutako krisiaren eta alarma-egoeraren eraginez, jarduera bertan behera utzi behar izan duten dendarierei eta ostalariei laguntzeko. Halaber, jarduera gelditzera behartuta egon ez diren arren, diru-sarrerak % 75 murriztu dituztenek ere eskuratu ahaliko dute laguntza.

Udalak 150.000 euroko funts ekonomikoa sortu du eta, baldintzak betez gero, 600 euro emango dizkio eskatzaile bakoitzari, besteak beste, mantentze-gastuak, alokairua eta hornitze-gastuak ordain ditzan. Aurkezteko epea dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta zazpi egunera amaituko da. Dena dela, udalak

webgunearen eta gizarte-sareen bidez jakinaraziko du eskaerak noiz eta nola aurkeztu behar diren.

Bestalde, udalak hainbat kanpaina ipiniko ditu martxan, herriko merkataritza sustatzeko. Esaterako, 30 euroko 1.500 bonu aterako dira –guztira 45.000 euro– Derioko saltokietan gastatzeko: erosleak 20 euro ordainduko ditu eta gainerakoa –10 euro– udalak ipiniko ditu. Gainera, udalak gogora ekarri duenez, aurten 11.400 euroko diru-laguntza onartu da Danerik Paraje merkatarien elkarateak onlineko salmentak egiteko webgunea sor dezan. Hurrengo hilabeteetan neurri gehiago babesteko aukera sustatuko da.

Zamudioko liburutegiak etxeko zerbitzua eskaintzen du

Zamudioko liburutegiak liburuak eta DVDak etxeko eramateko zerbitzua ipini du martxan. Zerbitzua erabili nahi dutenek 944 520 204 telefonora deitu behar dute, edo udalliburutegia@zamudio.eus helbide elektronikora mezu bat idatzi. Liburuak eta DVDak udal-lan-taldeak banatzen ditu.

Udalak jakinarazi duenez, lan hori segurtasun osoz egiteko, udal-langileek prestakuntza jaso dute liburuak eta DVDak desinfektatzeko eta norbera babesteko ekipak zuzen erabiltzeko. Izan ere, liburu eta DVD bakoitza itzultzen denean, desinfektatu egingo da eta koarentenan ipiniko da denboraldi batean, hurrengo mailegua egiteko moduan egon arte. Era berean, liburutegiak zerbitzua online ematen die Euskadiko eLiburutegiko mailegu digitalean telematikoki izena eman dutenei.



ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

IRATXO
gozotegia

larta personalizatua
trufak
leihak
pastelak
pastak

Mikel Zurutu, 2 - S. Iorja • Sondika, 48150 • 94 945 89 19

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lpzilen@gmail.com

900 oihalezko maskara banatu dira Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak eta herriko patchwork taldeak oihalezko maskarak josteko sarea sortu dute eta guztira 911 maskara egin dituzte. Maskarak herritarren artean banatu dira maiatzaren lehen astean. Bestalde, auzotar batzuen ekimenari esker, astero desinfektatzen dira herriko kaleak. TRATAWAC Sarrikolako enpresak horretarako beharrezkoa den hipokloritoa eman du, eta boluntario-talde batek sulfatagailuak erabiltzen egiten du desinfekzioa. Bestalde, udalak banakako babes-ekipoak banatu ditu eta lanak koordinatu ditu.



Hotel Seminariok logelak utzi ditu osasun-langileek erabiltzeko

Derioko Hotel Seminariok bat egin du COVID-19aren hedapena murrizteko ahaleginekin, eta 60 logela ipini ditu Osakidetzaren eskura doan, langileek erabil ditzaten. Helburua da osasun-langileek gaua bertan ematea eta, horrela, senideei birusarekin kutsatzea ekiditea.

Ur-parkea eraikiko dute Derion

Udalak prentsa-ohar baten bidez azaldu duenez, uretako jolasak gozatzeko gune dinamikoa eta sakonerarik gabekoa izango da, eta elementu egokituak izango ditu adin guztietako herritarren segurtasuna bermatzeko. Lanak hasita daude eta aurreikusi da ekainaren erdialdera arte iraungo dutela. Udalak 189.751 euro ipini ditu beharretan, eta lanak Arrizabal Elkar-tea enpresak egingo ditu.

“Iaz, kreditu-aldaketa egin genuen urte amaieran lanak esleitu ahal izateko, eta otsailean esleipenduna genuen jada, hau da, koronabirusak eragindako osasun-krisia hasi baino lehen”, esan du Esther Apraiz Derioko alkatea. “Proiektua derioztarren proposamena da, hainbat bidetatik behin eta berriz halarazi digutena. Pozik gaude herritarren eskaerari erantzuna emango



diogulako eta aisialdirako gune berri bat eskainiko dugulako. Gune berria egungo igerilekuen osagarria izango da”.

Sakonerarik gabeko jolasgune berriak 85 metro karratu izango ditu, eta gune bitan banatuko da. Umeentzako gunean, hauek egongo dira: lurretik aterako diren ur-zurrustak, uretako arkuak eta jolasteko elementuak, hala nola karramarroak, itsas izarrak eta dortokak. Familientzako gunea, bestalde, familientzat eta gazteentzat izango da. Jolasa aktiboagoa izango da bertan, eta mugitzen diren eta ukitu daitezkeen elementuak ipiniko dira, esaterako, iraultzen diren kuboak.

Udalak jakinarazitakoaren arabera, azpiegitura berriak bermatuko du modu seguruan jolastu daitekeela. Horrela, bada, sakonerarik gabeko ur-instalazioa denez, edozein arrisku barik jolastu ahal da uretan. Gainera, hilabete beroetan, Derioko Udal Kiroldegia uretan jolasteko berariazko gune bat eskaini ahal du, adinagatik edo irisgarritasunari lotutako arrazoiengatik inor baztertu gabe.



LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarmen lemaguru Facebooken

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



Txorierriko 16 saltokik egin dute #KreoEnTi ekimenarekin bat

#KreoEnTi kanpainaren harira, BBK Fundazioak 15.000 bonu hobaridun atera ditu lurraldeko merkataritzari laguntzeko. Jakinarazi duenez, bonu horiek agortu dira, baina oraindik hobarik gabeko bonuak hartzeko aukera dago. Bonu horiek maiatzaren 31ra arte eskuratu daitezke.

Bizkaiko 1.500 saltokik baino gehiago egin dute kanpainarekin bat eta haien artean Txorierriko 16 denda eta jatetxe daude. Hauek dira herriak: Derion, Ipuina jostailu-denda, Jaren bitxitegia, Ane Are-

txabaleta eta Molano ile-apaindegia, Irrintzi taberna, Tximeleta arropa-denda, Mamen lurrindegia, COM&COP, Txorierriko sarraila-denda eta Beaty Coaching NG; Sondikan, Gaztañaga jatetxea eta Sondika bitxitegia; Zamudion, Gorbeia Mertzaria eta Mosai taberna; Loion, Sierra alfonbrak; eta Larrabetzun, Larrabetzu pelukeria. Bonuei esker, saltokiek berehalako likidezia eskuratuko dute. Bonuak abenduaren 31ra arte gastatu ahalko dira.

Zamudioko Udalak wifia eta ordenagailuak emango dizkie beharizana duten ikasleei

Gizarte-zebitzuen bitartez, Zamudioko Udalak eskolarekin dabil lanean, beharizana duten ikasleei ordenagailuak eta wifi sareko sarbidea emateko, eta ikasturtea online egiteko modua izan dezaten. Udalak laguntza horietarako aurrekontu-partida handitzea onartu du, eta, hala, Eusko Jaurlaritzak ere beharizana hori betetzeko handitu dituen diru-funtsak osatuko ditu.

Ikasteko ordenagailua eta wifi sarerako sarbidea behar duten umeen edota gazteen familiek zein ikasten dabilen eta egoera horretan dagoen edonork 944 060 990 telefono zenbakira deitu dezake. Gizarte-zerbitzuek arreta egingo diete, eta euren prestakuntzarekin aurrera egiteko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzen lagunduko diete.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

t: Itxaso Marina / a: Derioko eskola

"Ikastetxe bakoitzeko irakasleok erabaki behar dugu hirugarren hiruilekoan zer egin: aurreko hiruhilekoetan ikasitakoa sakonduko den, ikasgai berririk emango den, ebaluazioa nola egingo den, zein gutxieneko hartuko den kontuan... Horren berri gurasoei eman behar diegu. Dena dela, hirugarren ebaluazioak ez du baldintzatuko ikasturtea gainditzea edo ez". Lerro hauek idatzi orduko Derioko eskolako irakasleek ez dute erabakita izan zer egin, eta maiatzaren 13an hezkuntza-ikuskariarekin telebilerak egitekoak ziren euren iritzia jakinarazteko. "Nolanahi ere, Lehen Hezkuntzari dagokionez, gure iritzia hau da: lehen eta bigarren hiruilekoetan ikasitakoa sakondu behar da hirugarren hiruilekoan. Zerbait berria lantzen bada, hori ere hartu daiteke kontuan, baina ez da erabakigarria izango ikasturtea gainditzeko ala suspenditzeko. Hau da, ikasleek hirugarren hiruilekoan egindako esfortzua baloratuko da, baina ikasturtearen batezbestekoa gehienbat lehenengo eta bigarren hiruhilabeteetako notak kontuan hartuta egingo da".

Aurreikusi denez, datorren ikasturtea irailaren 7an hasiko da. "Ikasle bakoitza ebaluatu beharko da zein egoeratan dagoen jakiteko eta behar dituen edukiak berarekin lantzeko. Era berean, lehenengo hiruhilekoan eduki berriak errepasatuko dira, eman badira". Hezkuntza-irizpideez ez ezik eskolara itzultzeaz ere kezkatuta daude irakasleak eta gurasoak. "Hemendik irailera bitartean gauzak argiago egongo direla suposatzen dut, eta ikastetxeetan hainbat neurri hartuko direla. Nire ustez, zaila izango da. Lehen Hezkuntzan, esaterako, gehienez 25 ikasle daude ikasgela bakoitzeko eta gure ikastetxeko ikasgelak txikiak dira ikasleen artean bi metroko tarteak izateko. Edonola ere, konponbideak bilatu litezke... Are zailago ikusten dut Haur Hezkuntzaren kasuan: Lehen Hez-

*"Ikasleen
zein langileon
osasuna
bermatu
behar da"*



Eskolara

Ikasturtea ekainean amaituko da, baina Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak behintzat ez dira irailera arte eskolara itzuliko. Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-plan-gintza landu du ikasturte-amaiera zehazteko eta ikasleak ebaluatzeko irizpideak ezartzeko. Iratxe Aiarza Derioko herri ikastetxeko zuzendariak bere iritzia eman digu, eta, era berean, ikasleak eta irakasleak egoera berrira nola moldatu diren azaldu digu.

kuntzako ikasleak eserita daude, baina Haur Hezkuntzakoak asko mugitzen dira. Era berean, dena desinfektatu beharko litzateke –mahaiak, ateak, leihoak, jostailuak, puzzleak, plastilina...– eta garbiketangileek lan handiagoa izango lukete. Jantokia nola kudeatu ere pentsatu behar da, ikasleak eta langileak birusarekin kutsatuta gauden nola jakin... Pentsatzen dut Hezkuntza Saila, Osakidetza eta Prebentzio Zerbitzua horretan ibiliko direla lanean... Ez dakit, argi dagoena da ikasleen zein langileon osasuna bermatu behar dela".

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak datorren ikasturtera

arte eskolara itzuliko ez diren arren, sei urtetik beherako gurasoek eskola zabalitzeko eskatu ahalko dute, lan egin behar badute eta umeak norekin utzi ez dutela argudiatzen badute. "Ulertu dudaren arabera, udalak udalekuak-edo antolatuta ahalko ditu guraso eta ume horien beharrazanei erantzuna emateko. Guk ez dugu ezer esango, eskola horretarako erabiltzea erabakitzen bada".

Eten digitala

Ikasleak martxoaren 13tik dabilta etxean ikasten, etxeko lanak online lantzen. "Guk *chromebook*-ak sortu ditugu eta ikasleak egunero daude irakasleare-



kin harremanetan. Bestalde, inkesta bana luzatu genien familiei, euren egoera zein den jakiteko eta ikasteko metodo berri hau nola kudeatzen dabilen jakiteko. Konturatu gara prest daudela seme-alabekin lan egiteko eta oso esfortzu handia egiten dabilizala. Asko eskertzen diegu”.

Gurasoen lanaz gainera, familiek seme-alaben etxeko lanez arduratu behar dute, eta heziketa-egoera berrira moldatu. Behar hori ez da erraza, eta are gutxiago telelana egiten bada. “Gerta daiteke guraso biak edo haietako bat etxetik lan egiten ibiltzea, eta aldi berean seme-alabek irakasleak agindutakoa egin duten egiaztatu behar izatea edo etxeko lanak egiten lagundu behar izatea... Era berean, gerta daiteke beste ordenagailu bat behar izatea, wifiaren potentzia nahikorik ez izatea...”. Edo etxean Internet ez egotea, eten digitala gure gizartean ere badagoelako. Aiarzaren esanetan, Derioko eskolako ikasle guztiak daude irakaslearekin harremanetan eta guztiek dute lan egiteko materiala. Alde batetik, eskolak ordenagailua utzi die behar izan duten familiei; eta bestetik, CEAR Euskadi erakundeak

–errefuxiatuei laguntzeko elkarteak– bere ardurapean dauden ikasleen beharrezana betetzeko ardura hartu du. Halaber, familia batek ez du etxean ordenagailurik izan eta eskolak gizarte-zerbitzuetara jo du laguntza eske.

Familiek ez ezik irakasleek ere ego-kitu behar izan dute lan egiteko modu berrira. “Nik oso gogotsu ikusten ditut materiala sortzen, sormena eta ideiak lantzen... Irakasleren batek gaueko 9etan ere ibili behar izan du emailerri erantzuten, gurasoek ezin izan baitituzte etxeko lanak lehenago bidali. Era berean, oso harreman ona dago eskolen artean eta ideiak-eta partekatu egiten dira. Egia esan, asko poztu nau jendeak egoera honetan aurrera egiteko duen gogoak”. Aiarza kexatu da hasieratik irakasleek oso informazio gutxi jaso dutelako; hala ere, hori bai, fitxak bete behar dituzte euren lanaren berri emateko. Azkenik, aitortu digu umeen falta sentitzen duela. “Joan den egunean, eskolako atezainak esan zidan triste zebilela. Eta egia da, umeen hutsunea sentitzen dugu: euren ahotsa, algarak, zarata...”.

**Etxealdetik
EUSKARALDIRA**

Ohitura aldaketa etxetik hasten da

@euskaraldia

@belarripest / @ahobizi

www.euskaraldia.eus/etxealdia

Berbalagunek bideo deien bidez jarraitzen dute euskaraz mintzatzen

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Berbalagun

Itsasne Zubiri Berbalagun egitasmoaren arduradunak azaldu digunez, bideo deiak egitea berbalagun talde baten proposamena izan zen. "Bideo deiak Duo aplikazioaren bidez egiten hasi ginen eta ikusi genuen oso ekintza positiboa zela: astero elkar ikusten zutenak berriro elkartu dira eta haien artean oso giro ona dagoenez, bada, aberasgarria da. Gainera, kameraren aurrean ipintzen zara eta lagunak ikusten dituzu; beraz, poztu egiten zara. Lehenengo erreakzioa irribarre egitea da, eta sasoi honetan irribarre ikustea oso adierazgarria da".

Bestalde, ekimenak egunerokotasunera hurbiltzen ditu berbalagunak eta, nahiz eta beste modu batean izan, taldekideek ohiturari eusten jarraitzen diote eta berdin-berdin batzen dira. "Inportantea da jendea ikustea eta harremanetan egotea". Lagunei eguna alaitzeko tresna ere bada, eta haiekin gogoratzen garela esateko. "Lehenengo egunean, adibidez, berbalagun baten urtebetetzea izan zen eta sorpresa eman genion. Berak jakin gabe konektatu ginen, eta deia hartu zue-nean -kostatu zitzaigun-, Zorionak zuri abestu genion. Oso polita izan zen, izan be, aurtengoa bezalako urtebetetzetik ez du berriro izango; hori espero dugu behintzat".

Berbalagun-talde gehienak animatu dira euskaraz hitz egiteko elkarretaratzea online egitera. "Taldea guzti-guztiek ez dute egin, euren aukera delako: gauza berria da eta batzuetan kostatzen zaigu berritasunetara moldatzea. Dena dela, gustatuko litzaidake azpimarratzea Son-

Konfinamendu-egunetan hainbat modu topatu ditugu ohiturei eusteko edota etxealdia arintzeko: kirola, musika, ipuin eta marrazki lehiaketak, kozinatzea... Txorierriko berbalagunek ere aurkitu dute harremanetan egoteko era, eta bideo deien bidez jarraitzen dute euskaraz egiten.



dikan nagusiek osatutako taldea dagoela eta guztiek telefonoan aplikazioa ipini dutela astero euskaraz egiten jarraitu ahal izateko. Era berean, nire ustez, animatzen denak errepikatu egiten du".

Marisol Bilbao Sondikako talde horretako berbalaguna da. Lehen, bera eta beste zazpi emakume eguaztenero, 09:30ean, batzen ziren pasieran ibiltzeko. Larrabarranantz joan ohi ziren, edo eguraldi

txarra eginez gero, kafe bana hartzera; ohiturak aldatu behar izan dituzte COVID-19aren eraginez. "Bideo deia egitea onuragarria da etxealdi luze honetan, besteak beste, ohikoa den jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzen digu eta euskaraz hitz egiten jarraitzen dugu. Era berean, gure arteko harremana bizirik mantentzen da: elkarri entzuteak eta elkar ikustek poztzen gaituzte, besteen berri izateak, norbera-

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etegabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

ren zereginak eta sentimenduak partekatzeak... Horrezaz gainera, pizgarria da sedentarismoan ez erortzeko”.

Familiarekin hitz egiteko bideo deia erabilia zuen arren, sondikoztarrak aitortu digu ohitura faltagatik hasieran arraroa egin zitzaiola. “Ez nekien zelan jarri esku-ko telefonoa, norberaren burua ikustea ere... Dena den, positiboa iruditu zitzaidan. Bigarren egunean naturalago sentitu nintzen, poz-pozik”. Bilbaok esan digunez, batzuetan laguntza behar du teknologia berriak erabiltzeko eta Berbalagun egitasmoaren arduradunaren argibideei arreta handiz jarraitu behar izan die aplikazioa telefonoan ipini ahal izateko. “Jo eta ke ibili naiz, eta azkenean senarrarena erabili behar dut, nireak memoria gutxi du eta. Bueno, bidean zer edo zer ikasi dut. Gainera, gauza berriak probatzea eta ezagutzea gustatzen zait: ona da gure garapenerako, malguagoak egiten baikaitu”.

Lagugarria

Koronabirusa gai nagusia da Sondika-ko taldearen bideo deietan, baina lehen bizipenak, osasuna, sukaldaritza, kultura, bidaiak, gizarte-gaiak... zituzten hizpide. Baina Bilbao baikorra da eta etxealdian ere bizitzak jarraitzen duen mezua helarazi nahi digu guztioi. “Benetako besarkadak emateko garaia helduko da. Ordura arte, lagunak, eta eutsi gogor!”.

Itxaso Llaguno derioztarra ere ez da oso trebea teknologia berrieekin, baina ondo moldatzen da, Berbalagun egitasmoaren arduradunaren argibideei esker. “Astelehenetan elkartzen gara lauzpabost lagun. Azken egunotan guztiok gabiltza apur bat galduta, eta berbalagunekin egoteak eta mintzapraktika egiteak eramangarriagoa egiten dute egoera. Eta euskaraz bizi izateaz gainera, oso dibertigarria da”. Koronabirusa bere taldean ere gai nagusia da. “Baina nahi dugun edozein gauzari buruz hitz egin dezakegu; oso saio atseginak dira”.

“Besteak beste, ohikoa den jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzen digu eta euskaraz hitz egiten jarraitzen dugu”



telefonoa:
63575 35 95
e-maila:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Ana López de Lerena zamudioztarra, berriz, ondo moldatzen da bideo deiekin. “Gure taldea astelehenetan batzen da 18:30ean. Lehen zortzi lagun elkartzen ginen; orain, lau”. Hizpide COVID-19ak eragindako egoera dute. “Nola moldatzen gabiltzan kontatzen diogu elkarri, bizitza, koronabirusari buruzko berriak, beste lagun batzuei buruzkoak...”. López de Lerena ere inportantetzat jo du gainerako berbalagunekin harremanetan jarraitzea. “Lagugarria da, izan ere, hainbeste egun daramatzat inor ikusi gabe... Ez da bakarrik besteei entzutea edo haiek ikustea... Bizitzara normaltasun apur bat ere ekartzen dit”. Erabateko normaltasunera itzuli arte, hain zuzen ere, online elkartuko dira berbalagunak astero-astero, euskaraz aritzeko, elkarrekin egoteko ohitura ez galtzeko eta konfinamendua apur bat eramangarriagoa izateko.

“Berbalagunekin egoteak eta mintzapraktika egiteak eramangarriagoa egiten dute egoera”



RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49



ZAMUDIO
Loteria Nacionala
Leizola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami suzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBATERA
Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. GANASERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N
www.gaminiz.com

Bisita mugatuak egin litezke zahar-etxeetan

Bizkaiko Foru Aldundiak jarraibideak eman dizkie lurraldeko zahar-etxe guztiei, COVID-19arekin kutsatuta ez dauden egoiliarrek astean behin senideen bisita eduki ahal izan dezaten. Zahar-etxeak lekuak atontzen eta bisitak antolatzen dabilta, azken horiek higie- eta segurtasun-berme handienekin egin daitezen.

t: Itxaso Marina Ondarroa

“Egia esan, langileok zein senideak apur bat beldurtuta gaude. Baina, bes-tetik, oso pozik gaude, zeren badakigu bisitak egoiliarrentzat nahiz euren ahaideentzat oso garrantzitsuak direla”, esan digu Marisol Couceiro Gurena Loiuko zahar-etxearen zuzendariak. Bere hitzetan, zahar-etxeak azpiegiturak oso lagungarriak eta egokiak dira “urrats hau

segurtasun eta kontrol handiz eman ahal izateko eta, horrela, etapa berrira arazo barik moldatu ahal izateko”.

Couceirok azaldu duenez, zahar-etxeak gune nahikoa ditu bisitak gainerako egoiliarrek eta tutoretzapeko apartamentuetako bizilagunak arriskuan ipini gabe egiteko. Baita behar den moduan hornituta dauden lekuak ere. “Aparteko sarrera bat dagoenez, pertsonak elkarrekin topo egitea ekidingo da. Sarrera hori

“Apur bat beldurtuta egon arren, pozik gaude, bisitak egoiliarrentzat nahiz ahaideentzat oso garrantzitsuak baitira”

banako geletatik hurbil dago eta, ondorioz, ez da igogailua erabiliko eta ez dira ateak edo beste elementu batzuk ukituko”. Bestalde, Couceirok jakinarazi du gela guztietan manparak ipintzen dabiltzala ukitze fisikoa saihesteko eta segurtasun handiagoa egoteko. “Bisitak aldeztu aurretik antolatuko dira. Gure instalazioek eskaintzen dituzten berme guztiei esker, dena ondo ateratzea espero dugu, eta normaltasuna pixkanaka-pixkanaka berreskuratuz joatea”.

Bakoitza babesteko ekipoak zituzten arren, osasun-krisiaren une gorenean, zahar-etxeak langileak txabusina edo bata barik geratu ziren eta konponbideak asmatu behar izan zituzten arazoari aurre



*“Momentu honetan,
bakoitza babesteko
ekipamendu osoak eta
nahikoak dauzkagu
langile guztiontzat”*

egiteko, adibidez, txabusinak plastikozko zakuak erabilita egitea. “Txabusinak agortu egin ziren eta ez geneukan zelan lortu. Zorionez, aspaldian eginda genuen eskari bat heldu zen orain dela aste batzuk, eta orain denerik daukagu. Beste aldetik, eskerrak eman nahi dizkiogu Loiuako alkateari 60 aurpegiko pantaila ekarri zizkigulako; 60 FFP2 maskarak ere ekarriko dizkigu. Momentu honetan, bakoitza babesteko ekipamendu osoak eta nahikoak dauzkagu langile guztiontzat”.

Lasaia

Aspaldian eskatu zen osasun-langileei eta zahar-etxeetako langileei testak egiteko, COVID-19arekin kutsatuta ote zeuden

*“Zahar-etxeetan oso
pertsonek zaurgarriak
bizi dira; baina, halaber,
ausartenak dira eta
eredua dira guztiontzat”*

jakiteko, baina asteak pasatu dira horiek egiten hasi diren arte. “Testa zahar-etxeetako guztioi egin digute. Horri esker jakin dugu benetako egoera zein den eta, datu gehiago dugunez, kutsatzeko arriskua zehaztu dezakegu. Era berean, aztertu dezakegu egoiliar berriak hartu edo ez; orain arte baztertuta izan dugu aukera hori”. Gainera, Gurena enpresak Suitzan egindako testak erosi ditu. “Nahiko fidagarriak dira. Testak modu jarraituan egiteko asmoa dugu, batez ere langileei: zahar-etxetik atera eta hara sartu egiten gara eta, hortaz, gaixotasuna nagusiei kutsatu ahalko genieke”.

Couceirok aipatu digu osasun-larrialdiaren hasieran baino lasaia daudela.



“Zahar-etxeetan oso pertsona zaurgarriak bizi dira; baina, halaber, ausartenak dira eta eredua dira guztiontzat”. Horren harritik, Couceirok kontatu digu egoiliarrek egoera hasieratik onartu zutela. “Nagusiek harrituta uzten gaituzte. Komunikabideen, ahaideen eta gure bidez badakite zer gertatzen ari den. Badakite salbuespenezko egoeran gaudela eta ohiz kanpoko neurriak onartzen dituzte. Ahal dugun guztia egiten dugu ahalik eta entretenituen egon daitezen, eta egunero hitz egiten dute familiakoekin. Batzuek honela esaten digute: «Bi gerra bizi izan ditut eta badakit zer den hau; ez naiz beldur». Bisita jaso ahal izatea guztiz onuragarria izango da euren emozio-egoerarako.



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



a: wikipedia

Gauza txarrek ere gauza onak ekarzen dituztela diote... Alarma-egoerak ingurumen-onurak ekarri dizkigu. Airearen kalitatea hobetu egin da, ibilgailuen eta hegazkinen zirkulazio urriaren ondorioz, atmosferaren kutsadura murriztu egin baita. Baina kutsadura atmosferikoa gutxitzeaz gain, kutsadura akustikoa ere gutxitu egin da. Konfinamenduan, hegaztien soinuek eramangarriago egiten dute etxean egotea. Ibilgailuen zarataren gainetik gure inguruko hegaztiak entzu-

ten ditugu. Une honetan, gure haranaren izena datorkigu gogora: "TXORIERRI".

Konfinamendua etxean egoteko garaia da, hegaztiak bikotekidea bilatu eta habia egiten duten bitartean. Une egoikia da gure leihotik hegaztiak behatzeko (zorionekoak prismatikoak dauzkatenak, lorategi bat gertu dutenak edo beste berdegune batzuk!), hegaztioi argazkiak ateratzeko eta euren ohiturak ezagutzeko.

Hegaztiei buruz dakiguna urria bada, hainbat informazio-iturritara jo dezakegu,

hor dugu esaterako "SEO Birdlife", irismen handiko ornitologia-elkartea. www.seo.org webgunean hegaztien gida bat dago, euren izena hainbat hizkuntzatan jasotzen duena, baita euskaraz ere, eta hegaztien deskribapenaz gain kantuak eta erreklamoak entzuteko audioak ere bai. Beste hauek ere kontsulta ditzakegu: web-kamera, ingurumen-hezkuntzako edukiak, familiako eta haurrentzako jarduerak, egun seinalatuen ospakizunak (maiatzaren 9a Hegazti Migratzaileen Nazioarteko Eguna)... Tokiko taldeak ere baditu, hala nola SEO-BETSAIDE (Bizkaiko eta Arabako taldea).

"eBird" izeneko doako aplikazio bat ere badugu. Milaka pertsonak egunero erregistratzen dituzte bertan hegaztiei buruzko behaketak, munduko mapa bat du hegaztiak aurkitu eta esploratzeko, argazkiak ikusteko, audioak entzuteko eta gure hegaztien behaketen jarraipena egiteko.

Behatzaile batek hegazti-mota ugari erregistratu ditu gure eremu geografikoan, besteak beste: txontak, zozoak, txepetak, lertxuntxoak, buztanikara zuriak, arabazozoak, hegatzabalak, txantxangorriak...

Leihotik ikusten dituzun hegaztien behatzaile bihur zaitezke. Batek daki! Beharbada denbora-pasa gisa hasten duzuna zure zaletasuna izatera irits daiteke azkenean!

Biodibertsitatea ezagutzeak, kasu honetan hegaztiak, horiek errespetatu eta babestera eramaten gaitu. Naturaren kontserbazioa funtsezkoa da etorkizun iraunkor baterako.

Etxeko leihotik

Konfinamendua hasi zenetik, handik eta hemendik, mezu asko jaso ditugu. Horietako batzuek etxean egin ditzakegun proposamenen berri ematen digute: zumba, yoga, errezetak, jolasak...

Etxeko txikienentzako baliabide berezi bat dakargu hona: *Etxeko leihotik*. Iñaki Sanz-Azkue biologoak eta Eñaut Aiertza-guena ilustratzaileak osatutako ipuina. Istorioa alaba konfinamenduan zehar entretentzeko sortu zuen egileak, eta hala-

ko batean guztion eskura jartzea erabaki zuen.

"Etxean pasa behar ditu Iratik hama-bost egun eta triste dago. Asko gustatu arren, ezingo ditu maite dituen animaliak ikusi eta naturaz gozatu. Egundauetan, ordea, etxeko leihotik begiratuta desku-brituko ditu naturako sekretu ezberdinak."

Ipuinaren osagarri irakasle batzuek bestelako baliabideak sortu dituzte: "Irakasleentzako koadernoak". Irakasleei ez

ezik gurasoei ere aukera ederra ematen die seme-alabekin batera gure inguruko flora eta faunaz gogoeta egiteko.

Etxetik atera ezinda dagoen egunotan, asko izan dira Iratik ezagutu dituen lagunak: urubia, txantxangorria, saguzarra, sugandila, apoa... Ezagutu nahi al dituzu?

Hemendik deskarga daiteke material hori: <https://irribarrez.info/berrogeialdia/>

Berrogeialdia amaituta ere baliabide ederra iruditu zaigu hainbat alderdi lantzeko: irakurketa, esku-lanak, ingurumena... Eta, gainera, familiakoen artean egin daiteke.



Eskerrik asko, bihotzez!

Hemendik gure eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu gizarte arloan diharduten langileei, gure artean okerren pasatzen ari direnei hain laguntza fina, gertuko eta eskuzabala emateagatik. Asko dira guztion ongizatea lortzeko helburuarekin buru-belarri aritu direnak: etxez etxeko laguntza zerbitzukoak, gizarte-langileak, familia-hezitzaileak eta esku-hartze psikologikoko zerbitzukoak.

Mankomunitateko langileak izan zein kanpoko enpresetakoak (Urgatzi SL, Edex Fundazioa, 7 estrellas) guztiak gelditu barik aritu dira: aurrez aurre, telefonoz, WhatsApp zein posta elektroniko bidez.

Bereziki zaurgarriak diren kasuetan hainbat laguntza ematen dituzte; esaterako, etxeko lanetan lagundu, erosketak



egin (elikagaiak, higiene artikulua, botikak), telefono bidezko jarraipena egin isolatuta dauden adinekoen eta ezgaitasunen bat dutenei...

Honelako uneetan igartzen da langile horiek guztiak bihotzez lan egiten dutela, enpatia eta konplizitate handia erakutsiz. Horregatik guztiagatik, mila esker!

Oinarrizko lexikoa

Komunikabideei esker COVID-19 gaixotasunari lotutako hainbat hitz berri ikasi ditugu azken asteotan. Baina ez ditugu beti behar bezala erabiltzen. Hori dela-eta, oraintsu, Euskaltzaindiak, UZEI-rekin lankidetzan, hitz zerrenda erabilgarri bat osatu du:

arnasgailua: arnasketa artifizialerako makina, zainketa intentsiboetan erabiltzen dena.

asintomatikoa (edo sintomarik gabekoa): gaixotasun bat ezagutarazten duen ageriko gertakari klinikorik ez duena.

bakartu: birusak jotako pertsona bakarrik jarri, berarekin daudenetatik bereizita.

berrogeialdia: gaixotasun kutsakorren bat duten (edo izan dezaketen) pertsonen ezaugarria.

COVID-19: SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako gaixotasuna.

etxeratze-agindua: egoera bereziren bat dela-eta, kalean ibiltzea debekatzeko duen agindua.

gaixotasun bektorea: agente patogeno bat organismo ostalaritik beste organismo batera transmititzeko gaitasuna duen izaki biziduna.

immunitatea: gaixotasun infekzioso baten aurka gorputzak duen erresistentzia. Adibidez: talde-immunitatea.

konfinamendua: konfinatzearen ondorioa. Askok itxialdia ere esaten diote.

koronabirusa: Coronaviridae familiako birusen generoa. Berez ez da gaixotasunaren izena, COVID-19 baizik.

maskara: ahoa eta sudurra estaltzen dituen babesgarria.

nazioarteko osasun-larrialdia: Nazioarteko Osasun Erregelamenduan zehaztutako ezohiko gertaera.

norbera babesteko ekipamendua (NBE): gaztelaniaz "EPI" esaten zaio. Langile bakoitzak bere lanerako segurtasunaren edo osasunaren kontrako arriskuren batetik babesteko eraman edo izan behar duen ekipamendua.

test azkarra: gaixotasun baten diagnostikoa denbora-tarte laburrean eta erraz egiteko erabiltzen den proba.

zainketa intentsiboetako unitatea (ZIU): gaztelaniaz "UCI" esaten zaio.

Maiatzak 17: LGTBI+ Fobiaren Nazioarteko Eguna

Urtero bezala, Txorierriko Mankomunitetatik gure konpromisoa berresten dugu LGTBI+ fobiaren aurkako lanetarekin jarraitzeko. 1990ko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea ezabatu zuen gaixotasun mentalen zerrendatik. Hortaz, gertakari historikoa izan zen, eta aurrerapauso itzela sexu orientazio eta nortasun jakin batzuk gizartearen berezko aniztasunaren bereizgarri gisa aitortu zitzaizkien gizarteak berak. Horregatik, azken hamarkadan, maiatzaren 17a LGTBI+ pertsonen (lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexual) aurkako gorroto eta indarkeria mota ororen eguna bihurtu da. Urte horretatik hona, legeak asko egin du aurrera, sexu orientazio edota generoa edozein dutela ere pertsona guztiek eskubide berdinekin izateko; LGTBI+ kolektiboetako pertsonak gainerakoekin berdintzen dituzten legeak onartu dira.

Gizarteak ere aurrera egin du bide horretan; izan ere, gizartearen kideen sexualtasun motak eta generoa bizitzeko askotariko erak modu irekian adierazi ahal izateko espazio sozialak geroz eta gehiago dira.

Baina oraindik ere, LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko lanetari eustea gaurkotatzen handiko gaia eta beharrezkoa izaten jarraitzen du, pertsona ororen askatasuna eta eskubideak bermatu ahal izateko.

Txorierriko berdintasun zerbitzuak berretsi egiten du konpromiso hori eta pertsona guzti horien eskubideak defendatzeko deia egiten dizuegu. Horretarako, sexu eta genero aniztasunaz eta maskulinitate berriez hausnartzeko, hurrengo pelikula hauek gomendatzen dizkizuegu:

–*Tomboy* (2011).

–*La vida de Adele* (2013).

–*Girl* (2018).

–*La chica danesa* (2015).

–*Llámame por tu nombre* (2017).

–*Con amor, Simon* (2018)

–*Moonlight* (2016)

t: Itxaso Marina Ondarroa

Alberto Gainza Di Stefano Baires enpresaren sortzailea da, eta, azaldu digunez, batez ere produktu bi erabiltzen dituzte garbiketak eta desinfekzioak egiteko orduan. Bata Vital oxide da; eta bestea, Clean and fresh. "Oso produktu berriak dira eta oso-oso partikula txikiez osatuta daude. Partikulak gainazal guztietan sartzen dira eta ez dira kaltegarriak ez pertsonentzat, ez animalientzat, ezta landareentzat ere. Jatekoei ere ez diete kalterik egiten". Produktuak Puriti Estatu Batuetako laborategiak garatzen ditu NA-Sarekin batera.

Vital oxide produktua ospitaleetan erabiltzen den moduko desinfektatzailea da. "Edozein gainazaletan erabili daiteke, sukaldeko tresnerian, ordenagailuetan, gailu elektrikoetan, oihaleetan... Lainoztagailu berezi baten bidez sortzen da hodei bat eta dena erabat desinfektatzen da: eskutokiak, teklatuak, hormak, sabaia... Desinfektatzailea ezarri eta handik 30 minutura ekin ahal zaio ohiko jarduerari berriro; bulego nahiz enpresa batean, edo etxean". Clean and fresh, bestalde, produktu fotokatalitiko da. "Leihoko kristalean produktua bota, eta argi naturala edo led argia antzematen duenean aktibatu egiten da eta tokia purifikatzen hasten da. Akaroak, lore-hautsa eta partikula organiko lurrunkorrak ezabatzen ditu, eta, horregatik, oso interesgarria da pertsona alergikoentzat". Produktu biek 90 egun irauten dute etxean erabiltzen badira; eta



Ingurune garbia

Garbiketa eta desinfekzioa ezinbestekoak dira geure burua patogenoetatik babesteko, eta Baires Txorierriko enpresak teknologiarik aurreratuenak erabiltzen ditu etxeetako zein enpresetako airea eta gainazalak tratatzeko. Horrela, nanoteknologian oinarritutako oso produktu berriak baliatzen ditu osasuna eta ingurumena zaintzeko.

"Partikulak gainazal guztietan sartzen dira eta ez dira kaltegarriak ez pertsonentzat, ez animalientzat"

Produktuek 90 egun irauten dute etxean erabiltzen badira; eta 30 egun, bulego, pabilioi edo enpresa batean



Gainza antropologo forentsea zen Argentinan, baina krisialdiak Venezuelara eta Estatu Batuetara eramane zuen; Txorierrira 2006an etorri zen. "Lehenengo autoa Estatu Batuetan garbitu nuen. Ezin izan nituen ikasketak baliozkotu eta pentsatu nuen: «Autoak garbitu behar badituz, ahalik eta auto-garbitzailerik onena izango naiz». Furgoneta txiki bat erosi nuen eta dirudunen auzoetan ibilgailuak garbitzen hasi nintzen". Euskal Herrira proiektu berri bat ekarri zuen eta 2007an Garbimovil enpresa sortu zuen Derion. "Bezeroa dagoen tokira joaten garen Euskadiko ibilgailu-gar-

Garbimovil

bitoki bakarra gara. Partikularren autoak garbitzen ditugu, kamioiak, ibilgailu ofizialak, suhiltzaileen kamioiak, ibilgailu-flo-tak... Furgoi-garbitoki bat dugu eta lekura ura ere eramaten dugu; gainera, erabilitako ura jaso, eta birziklatu egiten dugu". Enpresa xumeak dira biak, baina krisialdiari aurre egitea lortu dute. "Bost langile gara eta handituz goaz: azken batean, zenbait esparru jotzen ditugu, eta batek behera egiten duenean, besteak gora egiten du".

Baires enpresa orain dela hiru urte sortu zuen. "Oso pertsona ikusbera naiz,

ikertzea gustatzen zait eta, ahal du-dan neurrian, sortzea ere bai. Gizakiak eta ingurumena ere asko interesatzen zaizkit, eta horregatik pentsatu nuen ibilgailuen garbiketarekin bateragarria zen proiektu bat. Produktu berriak eta eskusiboak ikertzeari ekin nion, eta Baires sortu nuen". Heziketa ere jaso du urte hauetan. "Gainera, nire prestakuntza akademikoa baliagarri zait nire burua zein ingurunea nola zaindu jakiteko. Horri dagokionez, oso zorrotza izan naiz beti".

30 egun, bulego, pabilioi edo enpresa batean, horietan pertsonen mugimendua handiagoa delako. "Adibidez, eskutokia Vital oxide produktuarekin garbitu ondoren, lagun batek eskutokiari heltzen badiu, handik segundo gutxira desinfektatuko da berriro".

COVID-19ak sortutako alarmaren eraginez, Baires enpresaren lan-karga handitu da. "Leku asko garbitzen gabiltza; multinazional batek, esate baterako, Estatuan zein Portugalen dituen sukurtsalak garbitzeko eskatu digu. Izan ere, produktuak edozein germen ezabatzeko gai dira. Bestetik, Bizkaiko suhiltzaileek deitu ziguten Zaldibarrek zabortegean erabilitako jan-tziak eta ibilgailuak desinfektatzeko".



Gainzaren ustez, oso inportantea da mentalitatea aldatu eta baliabide gehiago inbertitzea garbiketan eta desinfekzioan. "Enpresetan, kasurako, laneko jak gutxitzen dira, ingurune garbi batean daudenez, langileak gutxiago gaixotzen baitira. Eta etxean desinfekzioa urtean hiruzpalau aldiz egiten badugu, osasuna zainduko dugu, produktuak botatzen ditugun bakoitzean bermatuko baitugu hiru hilabetea aire garbia izango dugula". Baires enpresak arrazoizko tarifak ditu. "Enpreseki metro koadroen arabera kobratzen diegu, eta 100-120 metro koadroko etxe bat garbitzeak eta desinfektatzeak 150 euro balio du". Informazio gehiago: www.baires.or.es.



Alberto Gainza: 691606715

info@baires.org.es
www.baires.org.es

— DESINFEKZIO profesionalak

— Produktu BERRI-BERRIAK

— Birus, bakterio eta akaro guztiak akabatzen ditugu (COVID-19a barne)

— EDOZEIN LEKUTAN: ostalaritza, eskolak, enpresa-bulegoak, ibilgailuak...

— EZ KALTEGARRIA: pertsona, animalia eta landareentzat

— Prezio MERKEAK

— DOAKO AURREKONTUA

ZAMUDION
bertan gaude

Elkartasuna aske dabil kalean

t/a: Gaizka Eguzkitza

Angela 87 urteko derioztarra da. "Gu kalera ateratzea nahi ez badute, zerbait eskaini behar digute. Argi dago egunero ez dugula kalera joateko beharrik, baina batzuetan, bai. Eta Gurutze Gorriak eskaintako zerbitzua oso ondo dago", esan digu. Angelak zerbitzuaren berri izan zuen eta Gurutze Gorriara deitu zuen. Boluntarioek erosketak egin zizkieten. "Esan didate astean behin erosketak egingo dizkidatela, eta zerbait gehiago behar izanez gero, haiei deitzeko. Aspertuta nabil, denon moduan, baina itxialdia ondo daramat, etxezalea naizelako".

Txorierrin ez da beharrian handirik egon, baina Angela bezalako lagun batzuk ditugu haranean. Gurutze Gorriak emandako datuen arabera, ia 30 lagunek erabili dute boluntarioen laguntza-sarea, eta guztira 40 boluntario daude. Gurutze Gorriak kudeatzen du zerbitzua eta kuartel nagusia Derioko Kultur Birikan jarri du. Boluntarioetako bat Marian derioztarra da. Marian sukaldaria da ikastetxe batean, eta bere lana, askorena legez, eten egin da. "Beste batzuei laguntzeko aukera zela iruditu zitzaidan. Egoera larria da eta premiazko neurriak behar ditugu aurre egiteko, hau da, guztiok inplikatzeara", aipatu digu.

"Egoera larria da eta premiazko neurriak behar ditugu aurre egiteko, hau da, guztiok inplikatzeara"

"Gazteei beti leporatzen diete ezer egiten ez dutela; Larrabetzukoek, aldiz, jarrera paregabea erakutsi dute"

Azken asteotan, koronabirusak etxetik atera ezinik utzi gaitu. Eta hori jasangaitza da, asper-asper eginda gaudelako. Hala ere, batzuentzat aspergarria izateaz gainera, premiazko arazoa da, esate baterako, janaria erosi ezin dutelako. Egoerari aurre egiteko eta beharrezana dutenei laguntzeko, boluntarioek osatutako sarea sortu da gure herrietan.

Begoña, Sondika



Marian edozer egiteko prest agertu da Gurutze Gorrian. Lehenengo egunean Deriora bidali zuten, nagusi batzuei erosketak egitera. Gainera, errezeta bat hartu zuen Sondikako anbulatorioan, Loiuko baserri batera eramateko. Emakumeak ez dio beldurrik kutsatzeari. "Segurtasun-neurrirei eta higieneari eusten badiezu, ez dago arazorik. Lanean ere eskaintzen diot arreta berezia garbiketari, sukaldean oso zorrotzak garelako; beraz, eskularruak eta maskara janztea ez zait kostatzen".

Marianek beti sentitu du elkartasunaren deia. "Gaur egun amari eta auzokide batzuei ere laguntzen diet. Oxfam eta DYA elkarteekin kolaboratzailea izan naiz, baina besterik ez; ez naiz inoiz gizarte-lanetan ibili. Lehen pentsatzen nuen erretiroa hartzen nuenean boluntario ibiliko nintzela. Batez ere arazoak dituzten gazteak interesatzen zitzaizkidan, baina esperientzia polit hau bizi eta gero, prest nago laguntza behar duen edozeini emateko".

Larrabetzu

Gurutze Gorriaren sarea Txorierrin oso zabalduta da, Larrabetzura izan ezik. Han lehenago jarri zuten martxan laguntza, Naia Madaraiaga zinegotziak azaldu digun moduan. "Harremanetan egon gara Gurutze Gorriarekin eta argibide piloa eman digute, batez ere higiene eta segurtasun-neurrirei dagokienez, baina guk sarea lehenago sortu genuen eta gure kabuz jarraitzea erabaki genuen. Gainera, eskaera handirik ere ez dugu eta ez dugu kanpoko laguntzarik behar, gazteek aurrerapausoa eman dutelako eta laguntzeko prest agertu direlako".

Guztira, 25-30 lagunek osatzen dute herriko sarea eta momentuz lau zapabost larrabetzuarrek baino ez dute laguntza eske deitu. Gazteak dira zerbitzuaren motorra. "Gazteei beti leporatzen diete ezer egiten ez dutela, kezkarik ez dutela...; Larrabetzukoek, aldiz, jarrera paregabea erakutsi dute eta agerian utzi dute ardurasuak direla. Gure gazteek txalo zaparrada galanta merezi dute", esan digu zinegotziak. Bere ustez, herriko merkataritza txikiak ere primeran jokatu dute. "Izugarrizko esfortzua egiten dabilta. Izan ere, egoera bereziki eurentzat da bortitza; hala ere,

erosketak eurek ere prestatzen eta eramaten dituzte bezero batzuen etxera. Eskertzekoa da”.

Zinegotzi batzuk ere sartu dira sarean. “Astero deiak egiten dizkiegu herriko nagusi batzuei, laguntza emateko. Gehienek ez dute ezer behar, senideren batek edo auzokideren batek laguntza ematen dietelako, baina isolamendua gogorra da, ordu asko dira eta, gutxienez, berba egiteko aukera ematen diegu (kar, kar). Laguntza-sarea eurei hurbildu nahi diegu; bakarrik ez daudela jakin dezaten”.

Caritasen lana

Boluntarioek erantzuna eman diote egoera larriari. Hala ere, COVID-19a gu-rean izan baino lehen, boluntarioak egon bazeuden gure herrietan. Caritas elkar-teak, esate baterako, hiru programa ga-ratzen ditu Txorierrin, eta horietako kide bat Begoña sondikoztarra dugu. “Astean behin, bisitaren bat egiten nion bakarrik bizi zen nagusiren bati. Koronabirusaren eraginez, aldiz, utzi diogu joateari, baina telefonoz deitzen diegu astean behin



Marian, Derio

edo birritan. Eurekin hitz egiten dugu, zerbait behar duten galdetzen diegu...”, adierazi du.

Caritasek beste zerbitzu bi eskaintzen zituen, baina pandemiak aldaketak ekarri ditu bietan. “Bata umeei dago zuzenduta, batez ere etorkinei. Haiek ere etxean dau-de eta laguntza eskaintzen zaie telefonoz.

Gainera, astean bitan bideodeien bidez ordu biko eskola ematen zaie. Eta beste proiektua harrera-zerbitzua da. Hori batez ere etorkinek erabiltzen dute, baina azken bolada honetan baita bertoko lagunek ere. Aholkularitza jasotzen dute hainbat esparrutan: dirulaguntzei buruz, esate ba-terako”, kontatu digu Begoñak.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



COVID 19ak eragindako egoera berezia dela eta TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIak aurrez- aurreko eskolak bertan behera utzi behar izan ditu. Hala ere, LANEAN jarraitzen dugu; bai IKASLEEK bai euskaltegiko LANGILE GUZTIOK.

ZAIN dezagun OSASUNA eta HAR dezagun INDARRA aurrerantzean ere GOGOTSU lanean jarraitzeko



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eu

Bata solidarioak

Herritarrek Derio herri solidarioa dela erakutsi dute beste behin ere. Izan ere, boluntarioen talde batek herri-ekimena sustatu du osasun-langileentzako bata josteko, eta lerro hauek idatzi orduko 3.000 bata eginda zuten. Ekimenean 200 lagun inguruk hartzen dute parte; haien artean, derioztarrak ez ezik Txorierriko zein inguruko herri batzuetako pertsonak ere badaude.



t: Itxaso Marina

Ane Abaunzak azaldu digun moduan, herri-ekimenak Derioko jostun biren –ama eta alaba– ideia izan du abiapuntutzat. Osasun-langileek norbera babesteko ekipamendurik eza zuten eta emakumeek egoerari erantzuna ematen laguntzeko ekarpena egin ahal zela otu zitzairen. Gizarte-sareei esker, jostunen inizatiba herri-ekimen bihurtu da eta haren inguruan 200 bat lagun batu dira. Boluntario gehienak Deriokoak izan arren, Txorierriko eta inguruko herri batzuetako lagunek ere egin dute egitasmoarekin bat. “Boluntarioen artean denetarik daude: etxeko andreak, jubilatuek, langabetuek, ERTE batean daudenak, denbora libre duten langileak...”

Ekimena lokal txiki batean hasi zen, eta, laster txiki gelditu zen. Lokalaren alboan PSOEko taberna dago eta hori alokairuan duenari eskatu zioten lekua era-

biltzeko. Baietz erantzun zuen eta gune logistikoa hara eramane zuten. “Bertan 18 pertsona inguru dabilta jo eta ke, goizez zein arratsaldean; batzuek 14 ordu ere egiten dituzte. Bertan patroiak moztzen dira, eta jostun bakoitzari lau bata egiteko materiala ematen zaio: patroiak erabiltuta moztutako plastiko-zatiak eta haria. Batak eginda daudenean, gune logistikora ekarri, eta berrikusi eta prestatzen dira. Ondoren, hiru boluntarioek aurretik eskatu dituzten osasun-zentroetara, os-

“Boluntarioen artean denetarik daude: etxeko andreak, jubilatuek, langabetuek, denbora libre duten langileak...”

pitaletara eta zahar-etxeetara eramaten dituzte”.

Aipatu moduan, plastikozko batakdira eta boluntarioak enpresaz enpresa ibili dira horiek herri-ekimenean inplikatzeke eta materiala batzeko. Egitasmoan hauek hartu dute parte: Saltoki (Asua), Tekener (Loiu), Cartonajes Erabil (Etxebarri), Coplasem (Derio) eta Meadwestvaco (Zamudio). Herriko Todo A Cienek eta partikular batzuek hariak eman dituzte.

Esker ona

Ekimena martxoaren 4an ipini zen martxan eta lerro hauek idatzi orduko 3.000 bata egin dituzte. “Maiatzaren 10erako-edo espero dugu amaitzea, zeren eta data horretarako osasun-zentroek beharizanak bideratzeko eta betetzeko baliabideak izango dituztela pentsatzen baitugu. Era berean, espero dugu gaixokopuruak behera egitea eta, ondorioz, beharizanak ere gutxiago izatea. Oraindik badugu batakdira egiteko plastikoak: hori amaitu arte jarraituko dugu lanean”.

Abaunzaren esanetan, momenturik hunkigarriena osasun-langileek eskerrak emateko bidalitako lehen argazkia jaso zutenean izan zen. “Ondoren, beste argazki batzuk etorri dira, baita auzokideen esker ona ere. Lokala ixten denean txalo egiten digute, bizkotxoak-eta ekartzen dizkigute, animoak eman... Boluntarioak ere txalotzen dituzte material bila eta batakdira ekartzera etortzen direnean... Eskertzekoa da, benetan”. Ez da gutxiagorako, euren lana harro egoteko modukoa baita.



Zure taxi, Txorierrikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

Politeknika Ikastegia Txorierri biserak egiten dabil osasun-langileentzat

Materialik eza egon da osasun-langileek euren burua COVID19tik babestu ahal izateko. Arazoari konponbidea ematen lagundu nahian, eta Tknika zentroak koordinatuta, Euskadiko Lanbide Heziketako (LH) ikastetxe publikoak zein kontzertatuak jo eta su ibili dira biserak egiten. Politeknika Ikastegia Txorierri ikastetxe horietako bat da, eta apirileko alea itxi orduko 500 bisera zituen eginda.

Ibon Valdivieso Politeknika Ikastegia Txorierriko irakaslea da eta berak eta beste lankide bik biserak egiten dituzte etxean. "Martxoan, Tknika zentroa -Ikerketa Zentroa Euskadiko LHn- ikastegiarekin ipini zen harremanetan, biserak egiteko proiektua azaltzeko: LHko ikastetxeek baliabideak ditugu egitasmoari heltzeko eta momentua zen osasun-materialik eza-

ren arazoa konpontzen laguntzeko. Onlinetako bilera egin genuen eta hiru irakasle azaldu ginen biserak etxean egiteko prest. Izan ere, ikastegian hiru dimentsioko sei inprimagailu ditugu, baina horietako hiru handiegia dira etxera eramateko; beraz, hiru irakasleok ikastegira etorri ginen eta bakoitzak inprimagailu bat eraman genuen etxera".

Valdeiviesok adierazi digunez, Tknikak bisera diseinatu eta Osakidetzan aurkeztu zuen. Osakidetzak homologatu zuen eta Tknikak aleak inprimatzeko jarraibideak jakinarazi zizkien ikastetxeei. Bisera PLA plastiko biodegradagarria erabilia egiten dituzte. "Zehatz-mehatz euskarriak dira. Gero, euskarri edo bisera horiei PVCzko film bat ipini behar zaie babesgarri erabiltzeko. Ikastegian ere izan ditugu PVCzko

filmak eta guztiak bidali ditugu Tknikara babesgarriak muntatu ditzaten".

Geografia-esparruaren arabera, Tknikak hiru taldetan antolatu ditu Lanbide Heziketako zentroak. "Bizkaiko erreferentzia-ikastetxea Atxuriko Emilio Campuzano ikastetxea da. Hamabost edo 20 ale egiten direnean, hara deitu behar da eta haiek mezularia bidaltzen digute etxera biserak jasotzera. Bisera Tknikak banatzen ditu ospitaleetan eta euren beharri zanak kontuan hartuta. Gauero txosten txiki bat bidaltzen digute jakinarazteko zenbat bisera egin diren eta nora bidali dituzten".

50 bisera egunero

Pandemiaren une gorenean, Politeknika Ikastegiko hiru irakasleen artean 45-50 bisera inguru egin dituzte egunero. "Inprimagailuak goizeko 7,30etik gaueko 11ak edo 12ak arte izan ditugu piztuta, jo eta ke biserak egiten. Ale bat inprimatzeko ordubete behar da; inprimagailuak lana bukatu duela entzuten dugunean, egingakoa atera eta ale berria inprimatzeko prestatzen dugu". Okerrena pasatu omen den arren, gaur egun ere biserak egiten jarraitzen dute. Aleak etxean inprimatzen dituzte, seme-alabak alboan dituztela eta ikasleentzako eskola birtuala prestatzen duten bitartean; hala ere, gustura egiten dutela esan digu. "Biserez gainera, beste gauzaren bat beharrezkoa balitz, hori ere egingo genuke".

Orotara 500 bisera egin dituzte, eta gehienak ospitaleetara eta osasun-zentroetara bidali badira ere, ale batzuk Derioko Udalari eman dizkiote dendarien eta ostalarien artean banatu ditzan; eta beste batzuk, Uriosteko adingabeen zentroari.



LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokomunitateak
Mantutze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu emisierako garbiketarak
Bastoiak
Zabur bilera

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autoocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

LEJARRENE JATETXEA
Garsaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

“Osasun-langileok bat izan gara”

LAURA AMELLA LOPEZ | erizaina

Laura Amella zamudioztarrak 14 urte daramatza erizain Basurtuko ospitalean. Traumatologiako operazio-gelako erizaina da, baina COVID-19ak sortutako osasun-larrialdiaren eraginez, Intermutual ospitalera bidali zuten martxoaren amaieran, kutsatutako gaixo arinak artatzera. Gaixo-kopurua pixkanaka-pixkanaka gutxitzen ari da eta ospitaleak normaltasun berrira egokitzen hasiak dira. Amella duela gutxi itzuli da bere lanpostura.

t: Itxaso Marina / a: L.A.

Nolakoa izan da itzulera?

Aldaketekin, baina ondo. Osasun-larrialdiaren aurretik, gure operazio-gelan traumatologiaren ebakuntzak baino ez ziren egiten; hala ere, orain COVID-19arekin kutsatuta dauden gaixoei egiten diegu ebakuntza, espezialitatea edozein dela ere: otorrinolaringologia, hausturak, zesareak... COVID-19ak eragindako osasun-larrialdian, gure operazio-gelan traekotomiaren bat egin zen eta horregatik erabaki da hura kutsatuta dauden gaixoak operatzeko atontzea.

Operazio-gelan higiene- eta segurtasun-neurri handiak hartu behar dira; orain zorrotzagoak, ezta?

Bai, ebakuntzak konplexuagoak dira. Osasun-langileek ohikoa baino babes-ge-ruza gehiago erabili behar dugu eta horrek lana zail bihurtzen du. Norbera babesteko ekipamenduei dagokienez, denetarik dugu: buzoak, maskarak, eskularruak...

Osasun-langileoi testak egiten ari zaizkizue; berandu?

“Gaixoak etxera joaten zirenean txaloak jotzen genituen eta oso-oso hunkigarria izaten zen”

Nire lantaldean 12-15 lagun gaude, eta testa operazio-gelara itzuli ginen lehenengo egunean bertan egin ziguten guztioi: alde batetik, PCR proba; eta bestetik, serologia. Hilabete eta erdiaren ondoren, bai, berandu egin digute testa. Beste herri batzuekin alderatuta, zahar-etxeetan ere berandu hasi dira probak egiten; egia esan, ez dakit zertan oinarritu diren horrela jokatzeko.

Nola gogoratzen dituzu Intermutual ospitalean emandako egunak?

Badirudi denbora luzea pasatu dela, dena oso modu bizian bizi delako. Intermutual ospitalean gaixo arinak tratatu genituen, emaitzaren baten zain zeudenak, edo tratamendua bukatzeaz. Beraz, ospitalean bizpahiru egun ematen zituzten eta gero etxera joaten ziren. Hori bai, egun batean bost gaixori ematen genien alta eta egun berean sei gaixo ingratzen ziren. Ez genuen haiekin egoteko denbora handirik, baina haiekin egoten ginenean zentzazioa hau zen: gizajoak, hemen daude bakarrik... Eurak, bestalde, oso eskertuta agertzen ziren eta guri kutsatzearen bel-

“Sentsazio hau izan dut orokorrean: unitate barri bat zabaltzen zenean, dena momentuan atontzen zen”




dur ziren. Etxera joaten zirenean txaloak jotzen genituen eta oso-oso hunkigarria izaten zen.

Lehen eguna apur bat kaotikoa izan omen zen...

Nik sentsazio hau izan dut orokorrean: unitate barri bat zabaltzen zenean, dena momentuan atontzen zen eta osasun-langileok ahal zen moduan egin behar genuen aurrera. Dena dela, egia da hasierako kaosaren ostean gauzak hobetuz joan zirela. Gu ondo izan gara Intermutual ospitalean, eta mediku bi izan ditugu; badakit beste leku batzuetan okerrago ibili direla.

Materialik eza aipatu da behin eta berriro.

Guk ez dugu material eza izan. Hala ere, hasieran ez nuen uste lekua gaixoak hartzeko ondo atonduta zegoenik, ezta osasun-langileoi emandako batako ego-kiak zirenik ere. Azalpenak eskatu nituen eta esandakoak lasaitu ninduen. Bestetik,



badakit beste leku batzuetako lankideek material eza izan dutela.

Zelakoa izan zen osasun-langileen harremana?

Oso ona, elkar ezagutzen ez genuen arren. Gaixotasuna azkar-azkar doa eta osasun-langileok ahaleginak egiten gabiltza hura hobeto ezagutzeko: gauza berriak ezagutzen dira egunero, protokoloak aldatzen dira... Egoera ez da atsegina izan, baina aurrera egin behar izan da eta osasun-langileok bat izan gara: inor ez da inor baino gehiago izan eta elkarri lagundu diogu. Orain arte, ospitaleetan "klasteak" egon dira osasun-langileon artean, eta, nire ustez, osasun-larrialdi honek aldatu egin gaitu. Eta horrela jarraituko dugula pentsatzen dut. Gizartea ere apur bat aldatzea espero dut.

Zein zentzutan?

Gaixotasuna ez da hilabete batean desagertuko, eta, beraz, ohitura batzuk al-

*Hau impasse bat da,
eta ondo egiten
badugu, gutxi
faltako zaigu*

datu beharko ditugu, eta higie-ne-ohitura berriak hartu.

Nola zabil-tza, datorren "normaltasun berriaren" aurrean?

Adi-adi nago, ez dakidalako lanpostu honetan noiz arte egongo naizen edota beste gauza bat egin beharko dudan. Egoerak kezkatu egiten nau, baina ez lehen bezala, gaixo-mota hau jadanik artatu dudalako. Orain ez nago lehen bezain larri. Eta zain gaude, ea berragertzerik egongo den, eragina norengan izango duen...

Hasi da benetan argia ikusten?

Gauzak hobetuz doazen susmoa dut. Aurreko egun batean, adibidez, COVID-19arekin kutsatutako bizpahiru lagun ingresatu ziren ospitaleko larrialdietan; eta pandemiaren une gorenean, 50 gaixo inguru ingresatzea normala izango zen. Era berean, alta asko izan dira eta pertsona gutxiago daude COVID-19arekin kutsatutako gaixoentzat atondutako solairuetan.

Zer deritzezu deskonfinamendua-ren aurreko arintze-neurriei?

Ondo deritzet, baina ezin gara erlaxatu: kalera denbora-tarte batez atera ahal garenez gero, zibikoak izan behar dugu, eta, beste pertsona batzuekin elkartu beharrean, elkarri agurtu besterik ez egin, eta impasse hau beste modu batean bizi. Hau impasse bat baita, eta ondo egiten badugu, gutxi faltako zaigu; bestela, berragertuko da, eta, beharbada, etxean gelditu beharko dugu berriro.



t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Aurregoiti

Zer deritzezu Espainiako Gobernuak ostalaritza sektorearentzat azaldutako neurriei?

Lau langileak ERTEa bidali behar izan nituen martxoan eta ni Lanbidek autonomoentzat ematen duen laguntza kobratzen nabil. Lehenengo eta behin jakin beharko nuke Espainiako Gobernuak proposatutakoa nire egoerarekin bateragarria den. Izan ere, neu bakarrik moldatu ahalko nintzateke etxera eramateko janaria prestatzen, baina ez dut sorpresa desatsegini izan nahi. Bestalde, guk lekua dugu mahaian artean tarte nahikoa izateko,

baina terrazan bakarrik edaria kontsumitu ahal bada edo egunean soilik otordu-kopuru txiki zehatz bat –nahiz eta 30 izan– eman ahal badut, ez zait merezi ERTEa bertan behera uztea, ez bainuke langileei ordaintzeko dirurik izango. Bizkaiko Ostalaritza Elkartarekin izango dugu bilera, eta zain nago, ea zerbait argitzen didaten... Halaber, oraindik ez dakizkigu beste xehetasun batzuk: bezeroek maskara eta eskularruak jantzita etorri beharko diren, komuna erabiltzen duten bakoitzean hura garbitu beharko dugun... Jakin dut, beste neurri batzuez gainera, Txinan ozonoa erabiltzen dutela jatetxearen barruko giroa garbitzeko, eta Madrilgo jatetxeren batean

“Erakundeak ere gog

NEREA ELEXPURU ABIO |
Aurregoiti jatetxea

Tabernek eta jatetxeek moldatu beharko dute COVID-19ak ekarritako normaltasun berrira, eta lekua atondu, segurtasun- eta higiene-neurriak betetzeko. Garai latzak datoz, eta Nerea Elempuruk bere egoeraren eta iritziaren berri eman digu. Elempuru Lauroetako Aurregoiti jatetxearen kudeatzailea da (Loiu), zeina tradizio handiko jatetxeetako bat baita Txorierrin.

sistema hori ezarri dutela... Baina oraindik ez dut entzun neurri horiek hemen ere hartu beharko diren.

Autonomoentzako langabezia-presztaziotik aparte, beste laguntzarik eskatu duzu?

Autonomoa naiz, baina baltzu mugatua sortu dut semeetako batekin eta sozietatearen kidea naiz; ondorioz, ezin dut autonomoentzako 3.000 euroko laguntza eskatu. Elkargi dirulaguntzak kudeatzen dabil argindarra, ura... ordaintzen laguntzeko; hala ere, nik diru-koltxoi txiki bat dut eta oraindik ez dut dirulaguntzarik eskatu... Egia esan, aukera hori aztertu dut, zer gertatuko den oso argi ez dugunez, beti

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

PATXI
KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarroa 100 - 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 132 137 - www.patxi.coop

historia handia dugun enpresekin oratzea gustatuko litzaidake"

esaten diot neure buruari apur bat gehiago aguantatzeko... Gainera, dirulaguntzak eskatzeko, paper asko eta asko bete behar dira eta aholkulariari eskatu beharko diot laguntza: beraz, beste gastu bat izango dut... Era berean, nahiz eta lehenengo urtean kuotarik ez ordaindu, gero maileguaren amortizazio-kuotak ordaintzen hasi beharko da, eta jatetxea berritzeko eskatu nuen mailegu pare bat ordaintzen nabil oraindik... Hil-amaierara ailegatzea kostatzen zaigu orain; eta gero, orduan? Ahaleginak egiten nabil laguntza horiek ez eskatzeko... Nire ustez, gero ere egongo da aukera.

Uste dut sektoreko enpresa batzuek ekimenak ipini dituztela martxan.

Gure hornitzaile batek, esaterako, plataforma bat sortu du bertan gure eskaintzak sal ditzagun: bederatzi eguneko menu erosi, eta 10 eskuratu, adibidea ipintzearen. Diru-sarrerak bermatzen lagungarria da, baina ez da doakoa, plataformak % 10 irabazten baitu. Beste alde batetik, Mahou enpresak hasita dagoen garagardo-barril bakoitzeko beste barril bat garagardo emango digu ohiko bezerooi, eta aste batean eskatzen ditugun garagardoa eta urbotilak oparituko dizkigu. Ondo portatzen ari dira. Aurreko egunean Movistarrera deitu nuen, haiekin futbol-zerbitzu bat kontra-

"Era batean edo bestean lagundu ahal digute, adibidez, Gizarte Segurantzaren kotizazioekin"

tatuta dugu eta, eta galdetu nien ea martxoan, apirilean, maiatzean... kuota osoa kobratuko ziguten. Erantzun zidaten ezetz, deitzen zuten bezeroei % 80ko deskontua egingo zietela. Hortaz, deitzen ez bada, ez dago deskonturik? Izugarria da.

Nolako laguntzak sustatu beharko lituzkete erakunde publikoek?

Sasoi batzuetan diru-laguntzak eman dira zero kostuan. Zabaltzen dudanean, lau langileak berriro kontratatu beharko ditut, eta horrek ekarriko dituen gastuei aurre egin. Gustatuko litzaidake lanean urteak eta urteak daramatzagun eta historia handia dugun enpresekin ere gogoratzea, izan ere, sustatzen diren laguntza guztiak enpresa berrientzat dira, ekintzaileentzat. Guk krisi batzuei aurre egin diegu eta uste dut era batean edo bestean lagundu ahal digutela, adibidez, Gizarte Segurantzaren kotizazioekin.

Zein da Aurregoitiren historia?

Familiako jatetxea da. Etxea 1954an egin zen, aita-amaginarrebak hemen bizi zitezten. Esne-banataileak ziren, baina, txerriak zituztenez eta inguruetan ehiztariak ibiltzen zirenez, amaginarrebari otu zitzaion negozio txiki bat ipintzea. Taberna 1955ean-edo jarri zuen martxan eta hauen-gatik egin zen ospetsu: arrautzak txori-zoarekin, indaba-janak eta txerribodak. Handik hona, "Mirenen taberna" moduan da ezaguna. Nire senarrak, Josu Aurrekoe-txea Goitiak, 1987an utzi zuen futbola eta tabernaren ardura hartu zuen. Garai hartan Gatarakako errepidea egin zen, eta egunero 100 bazkari ematen ziren, baita enkarguzko afariak ere. Senarrak beste modu batean lan egiteko beharra ikusi zuen, eta langileak kontratatzea erabaki zuen. Ni 1989an agertu nintzen hemendik, zerbitzari kontratatu ninduten, eta gaur egun jatetxearen kudeatzailea naiz, senarrak orain dela urte bi erretiroa hartu du eta.

Zein egoeratan egon da jatetxea itxi baino lehen?

Eguneko menuak ematen ditugu eta asteburuetan karta dugu. Indabak eta txuletoia jatera ere etortzen da jendea. Gainerakoengan bezala, krisiek guregan ere izan dute eragina, baina jatetxeak ondo funtzionatu du orokorrean.



**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144



Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txartelak: 9-4
413. bulegoa
48160 Leizaola

Telefonoa eta faxa:
94 454 44 98
a.amondarain@okularrak.net



**OAKLAND
ENGLISH**

LEHENDAKARI LEIZADIA PLAZA, 2
ZAMUDIO

946522857



Iz

Txanxargorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

Ille-apaindegia
estetika



**Enaitz
TABERNA**

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama



**LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO**

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

“Birusak gauza on bat ekarri du Esta argi utzi du osasun sistema publiko

AMAIA AGIRRE | Estatu Batuetan bizi den larrabetzuarra

Amaia Agirre larrabetzuarra musikaria eta pedagogoa da. 2011n, Estatu Batuetara, Nashville hirira, joan zen ingelesa eta musika ikastera, baina bertan geratu zen betiko. Koronabirusak etxetik aldatzen zebilela harrapatu du. Amaiak eta bere gizonak Nashville uzteko asmoa zuten New Yorkera joateko. Aste batzuk eman dituzte Alabaman eta apirila Nashvillen pasatu dute. Eta gero, batek daki!

t: Gaizka Eguzkitza /a: A. A.

Koronabirusak New Yorkera bidean harrapatu zaituzte. Non zaudete gaur egun?

Urtarrila eta otsaila Mississippin pasatu genituen lan egiten. Ondoren, etxekaldaketa prestatu genuen eta gure gauza guztiak trailer batean sartu genituen. Izan ere, martxotik maiatzera bitartean musika-birak genituen gure taldeekin. Richardek Fly Golden Eagle taldeko kidea da, eta ni, Thelma And The Sleaze taldekoa. Baina dena geratu da bertan behera, eta Alabamara joan ginen, Richarden gurasoen etxera. Orain Nashvillen gaude, eta gero, batek daki!

Zelan zaudete? Koronabirusak jota dabilen edo ibili den baten bat ezagutzen duzu?

Nashvillen bizi den lehengusina medikua da, eta berak pasatu duela uste dut. Klinikari, lehenengo gaixotuekin egon zen harremanetan eta gero gaixorik jarri zen. Sukarra izan zuen eta, berehala hobetu bazen ere, aste bi egon da erabateko isolamenduan. Orain etxetik egiten du lan, Internet eta telefonoaren bidez. Gaixorik jarri zenean, Nashvilleko ospitaleek ez zuten koronabirusa antzemateko testik; beraz, ez dakigu pasatu duen ala ez.

Nolako egoera dago Estatu Batuetan?

Estatu bakoitzak bere legeak ezartzen ditu, egoera ezberdina baita estatua batean edo bestean. Esate baterako, New York hiria pandemiaren epizentroa da eta neurri zorrotzak martxoan hartu zituzten: etxean geratzeko agindua inposatu zuten, kaleak kontrolatzen dituzte... Duela egun



Nashville hiria, hutsik. Goiko argazkietan, Amaia Thelma And The Sleaze taldekoekin



tu Batuetara: a behar dela"

batzuk irakurri nuen hango Rikers Island kartzelako presoei Bronx-eko Hart Island-en hilobiak egiteagatik orduko sei dolar eskaini zitzaizkiela. Hori dirutza da, kartzelako soldaten estandarren arabera.

Hasieran, agintari estatubatuarrek ez zuten neurri berezirik hartu nahi, baina dagoeneko aldatu dute jarrera, ezta?

Bai. Egoeraren larritasuna kontuan izanda, Trump txotxongiloak eta bere leinukoek arduragabe hutsak direla utzi dute argi. Gobernuak pandemia prebenitzeko aukera izan du, baina hori egin beharrean, denbora galdu du eta nahastea eragin du eta informazio falta. Estatu espainiarrean bizi dena ere, neurri handi batean, pandemiaren aurrean berandu erantzutearen ondorioa dela uste dut.

Nolako neurriak hartu dituzte bertan?

Oraingoz, AEBetan ez da alarma-egoerarik inposatu. Neurri zorrotzena etxean geratzeko agindua izan da. Eta hori gehienek ezarri dute, bederatzia estatuk izan ezik. Horrek esan nahi du jendea ezin dela kalera atera, funtsezko gauzak, erosketak eta horrelakoak egitera ez bada. Oinarritzakoak ez diren zerbitzuak ere itxita daude. Era berean, metro biko distantziara egon behar da eta leku berean ezin dira 10 pertsona baino gehiago batu. Bidaia-tzeari dagokionez, ez dago murrizketarik. Orokorrean, isolatzeko gomendioa besterik ez da.

Zelan daroazu itxialdia?

Egoera honek ekartzen duen ziurgabetasuna kontuan hartuta, linboan gaude. Eta nik *Limbo Rock*-a dantzatuko banu bezala jokatu dut: indartsu, zorionez

"Trump txotxongiloak eta bere leinukoek arduragabe hutsak direla utzi dute argi"

"Funtsezkoak ez diren zerbitzu guztiak itxita daude, baina funtsezkoa zer den estatu bakoitzak erabakitzen du"

"Jendea elkarri laguntzeko prest dago eta hori da egoera larri honen alderdi politena"

eta malgutasunez. Ondo gaude: egunero joaten gara mendira, momentuz "distantzia soziala" mantentzen badugu, mendira irten ahal garelako. Gainera, gitarra jotzen dugu, irakurri... Eta ondo jan, gurasoek bidalitako Sartagudako piper-latak ia bukatu ditugu eta (kar, kar).

Eskolak itxita daude? Eta gasolindegia, tabernak edo supermerkatuak?

Funtsezkoak ez diren zerbitzu guztiak itxita egon behar dira, baina funtsezkoa zer den hiri eta estatu bakoitzak erabakitzen du. Supermerkatuak, farmaziak, burdindegia, alkohola saltzen duten dendak, gasolindegia eta abar irekita daude. Jatetxeak zabalik dauden arren, janaria telefonoz eskatu eta etxera eraman behar duzu. Denda askotan txandaka sartzera behartzen zaituzte eta ilarak oso han-

diak dira, batez ere alkohola saltzen duten dendetan. Eskolei dagokionez, Alabamako eta beste 10 estatuk ikasturte osorako itxi dituzte; beste batzuk maiatza amaierara arte, baina gehienak apirilaren amaierara arte egongo dira itxita. Eskolak bertualak izango dira. Nashville hiriak gorriak ikusi ditu azken bolada honetan, martxoaren lehenengo astean tornado batek 24 lagun hil zituelako. Hondamendia izan zen eta handik 10 egunera koronabirusa etorri zen. Beste alde batetik, taberna guztiak itxita daude.

Eta osasun-zerbitzuak? Ospitaleak, klinikak?

Osasun-zerbitzuak, gainezka! Koronabirusari aurre egiteko baliabide nahikorik eza oso nabarmena da: ekipamendu medikoa, maskarak, testak, ospitaleetako oheak, haizagailuak, arnasgailuak... Estatu Batuetan ia ospitale guztiak pribatuak dira eta herritarren % 8,5ek, 27 milioi lagunek, ez dute inolako mediku aseguruirik. Krisi honek osasun sistema publikoaren benetako egoera zein den erakutsi du, baita sistema neoliberalak behar sozialei erantzuteko dituen ahultasunak ere. Birusak gauza on bat ekarri du: argi utzi du osasun sistema publikoa eta unibertsala behar dela.

Jendeak txintxo eta arduraz jokatzen du?

Jendeak zintzo, ardurarekin eta elkar-tasunez jokatzen du. Gutxi batzuek bakarrik egiten dute paso. Nor bere etxean geratzeko joera argia da, garbitasun-praktikak ulertzen dira, erosketak egitean distantziak errespetatzeko ahaleginak egiten dira... Baina Nashvillen behintzat ez da ia maskararik erabiltzen. Kontzientziazioa oso bestelakoa da hiri batean edo beste batean. Alabaman, adibidez, apirilaren 4an ezarri zuten etxean geratzeko agindua eta aurreko egunera arte jendea normaltasunez ibiltzen zen kalean. Bestalde, jendea elkarri laguntzeko prest dago eta hori da egoera larri honen alderdi politena.



t: Itxaso Marina / a: Patxi Koop.

"Aukera bi genituen: bata, gelditu eta enpresa ixtea; eta bestea, zerbait berria pentsatu eta aurrera egitea", azaldu digu Galder Uriarte Zabalak. Hori kooperatibaren zuzendaritza-taldearen arduraduna da. "Gu berritzaileak eta ipurterreak izan gara beti, DNAn daramagu hori, eta aurrera jarraitu eta onlineko denda zabaltzea erabaki genuen. Denda aste batean ipini genuen martxan. Etxez etxeko banaketa guztiz berria da guretzat eta, ikasten dugun bitartean, zerbitzua pixkanaka-pixkanaka hobetuz goaz".

Etxez etxeko banaketa aurrera jarraitzeko modua da eta, Uriarteren esanetan, oso harrera ona izan du. Gizarte-sareek zerikusia eduki dute horretan, lagun askok horien bitartez ematen baitute zerbitzua- ren berri. "Hala ere, jakina, lehen 1.400 bezeroetik gora hornitzen genituen, eta orain, berriz, 100 bezero ditugu; gutxi dira. Baina zerbait egin behar dugu: 26 kooperatibista gara eta guztion soldata-edo hortik ateratzen da".

Eskariak www.patxikoop.eus webgunearen bidez egin daitezke eta, bestek beste, hauek eskatu daitezke: olio, esnea, ura, garagardoa, kafea eta gel hidroalkoholikoa. Erosketa txartelaz ordaindu behar da eta, webgunean eskariak beranduenaz 72 orduan eramango dituztela dakarren arren, eskatutakoa 24-48 orduan ematen dabilta. "Gure formatua ostalaritzarako da eta badakigu ez dela etxeko beharrianetara ondo egokitzen. Horregatik, hobetzeko prozesu batean gabiltza, eskariak egiteko orduan, bezeroek erraztasunak izan ditzaten. Gauza berriak egiten gabiltza, aukerak aztertzen".

Laguntzen jarraitzea

Kooperatiba Derion dago eta, Txorierriz gainera, zerbitzua hainbat lekutan eskaintzen dute, hala nola Eskuinaldea, Mungialdea, Plentzia, Bilbo Handia eta



Berrikuntza DNAn

Patxi Kooperatibak edariak banatzen ditu eta bere bezero nagusiak tabernak eta jatetxeak dira. Horien itxieraren ondorioz, kooperatibaren lana ere egun batetik bestera gelditu da, eta aurrera jarraitzeko modu berria asmatu behar izan dute: negozioa etxez etxeko banaketara zabaltzea.

Bestek beste, hauek eskatu daitezke: olio, esnea, ura, garagardoa, kafea eta gel hidroalkoholikoa

Durangaldea. "Gure bezeroak -tabernak eta jatetxeak- herri horietan daude, azken batean".

Uriartek aipatu digunez, badakite "normaltasun berriak" ohitura asko aldatzea ekarriko duela. Hori dela eta, ostalaritzak

jarduerari berriro ekin ondoren ere etxez etxeko banaketa-zerbitzua eskaintzen jarraituko dute. "Gauzak hobetuko ditugu. Adibidez, leku bat atonduko dugu biltegian, jendeak eskariak bertan hartu ahal izateko".

Jatetxeak eta tabernak ez ezik jaietako txosnak ere hornitzen ditu Patxi Kooperatibak. "Antza denez, udan ez da jairik egongo, eta ez dakigu tabernak eta jatetxeak noiz zabaldu ahaliko diren. Haien egoerak gudan izango du eragina; dena dela, berriro zabaltzen direnean laguntzen eta babesa ematen jarraituko dugu, beti egin dugun moduan. Argi dugu bezero nagusiak eurak direla eta horrela izaten segituko du".

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

areagandik gertu

ABOKU-ARITZA - TASAGIOA
ALOKATZEAK - ESKU ALBATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS-BILBAOEN AGENTZIA

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Bizkaiko Txakolina

Goitortza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Supermerkatuak, gainezka

Egunero, 20:00etan, osasun arloko langileak txalotzen ditugu. Erizainek eta medikuek koronabirusaren kontrako lehenengo defentsa-lerroa osatzen dute. Hala ere, hauek ez dira kutsatzeko arrisku handia duten bakarrak: supermerkatuak, esate baterako, behar-beharrezkoak dira eta horietatik hainbat lagun pasatzen dira egunero. Txorierrin badauzkagu supermerkatu batzuk eta horietako batek, Zamudioko Carrefourrek, bere egoeraren berri eman digu. "Gainezka gabiltza", esan dute.



t: Gaizka Eguzkitza / a: Arantza Atxutegi

"Oso estresatuta ibili gara. Etxean gertatzeko agindua eman baino lehen, hasi ginen xaboiak eta desinfektatzeko produktuak gordetzen. Carrefourrek maskarak eta gela bidali zizkigun eta, gainera, tokian tokiko hornitzaileek ere lagundu ziguten: Zamudioko liburu-dendak plastikoa saldu zigun; Garrido Derioko enpresak, eskularruak... Baina gainezka ibili gara. Itzela izan da", esan du Aitor Fernandez Zamudioko Carrefour supermerkatuaren jabeak.

Koronabirusak eragin handia izan du merkataritzan. Denda gehienek itxi egin behar izan dute, baita taberneek ere. Supermerkatuak, aldiz, oinarritzakoak dira eta premiazko produktuak saltzen jarraitzen dute. "Gaur egun lasaiago gabiltza, jendeak neurritz eta arduraz erosten duelako. Gainera, bezeroak konturatu dira kontua larria dela eta seriotasunez jokatzeko dute."

Lehen, aldiz, segurtasun-neurriak ez ziren errespetatzen".

Zamudioko Carrefourrek arreta berezia eskaini dio segurtasunari, noski. Zorionez, Aitor erizaintzako laguntzailea izan da Osakidetzan eta segurtasun-neurriak ez dira kontu berriak berarentzat. "Inportanteena distantziari eta higieneari eustea da eta ez erlaxatzea. Bestela, jai dugu. Metakrilatozko panelak jarri ditugu kutxetan; han plastikozko geruza bat ere jarri dugu, kutxazaina erabat isolatzeko. Era berean, supermerkatuko tresnak lehen baino askoz maizago garbitzen ditugu: kutxak, erosketa-orgak, solairua... Gel pila bat erosi genuen eta bai langileek (komunean, biltegian), bai bezeroek (irteeran) banagailuak erabil ditzakete. Ozono-sorgailua erosi nahi dugu, gauean denda desinfektatzeko, baina momentuz ezin dugu topatu".

Egoera honen aurrean, Carrefourreko Zamudioko jabeak langileak goraipa-

"Edozeinek hartuko zukeen baja egoera honetan; nire langileek, ez, ordea. Harro-harro nago haiekin"

tu ditu. "Edozeinek hartuko zukeen baja egoera honetan; nire langileek, ez, ordea. Harro-harro nago euren jokabidearekin. Babesa eman diogu elkarri. Jendeak ez du ikusten, baina denda leku arriskutsua da kutsatzeko. Eta higieneari eta segurtasun-neurriei eustea ez da erraza; horrek tentsioa sortzen du eta dena pasatzen denean, oparixoren bat egin beharko genieke, merezi dute eta".

Politikaren txanda

Koronabirusaren krisiak onura ekarri dio Fernandezi neurri batean, salmentek gora egin dutelako. Hala ere, zamudioztarra kezkatuta agertu da eta laguntza politikariei eskatu die. "Egoera larria da arlo ekonomikoan guztiontzat, batez ere autonomoentzat. Denda txikiek itxita jarraitzen badute, langabeziak gora egiten badu, dirua ez bada mugitzen... Azkenean, egoera horrek miseria ekarriko digu guztioi. Eta hori politikariek konpondu behar dute. Nire ustez, alderdi guztietako politikariak batu beharko lirateke, euren arteko desberdintasunak alde batera utzi eta guztien artean hau erabaki: Koronabirusa pasatzen denean, nolako herria nahi dugu? Bizirik dagoen herria, ala hilda dagoena? Tabernaz eta dendaz beteta dagoena, ala denda bakar bat duena? Horretarako balio du politikak. Ostalaritzak eta tokian tokiko merkataritzak laguntza beharko dute".

t: Itxaso Marina / a: Artile Artean

Zer deritzezu Espainiako Gobernuak aurkeztutako neurriei?

Nire ustez, dendariok txarto pasatuko dugu hilabete batzuetan eta baliteke askok itxi behar izatea. Esaterako, edukiera % 30era murriztu behar bada, diru-sarrerak horren araberakoak izango dira. Pertsonen artean metro biko tartea egon behar dela esan digute, aurretiko hitzordua eskatu daitekeela... Baina -lerro hauek idatzi orduko- ez digute adierazi dendariok zein bezeroek norbera babesteko ekipamendua jantzi beharko dugun, zein higie-neurri hartu behar dugun... Gainera, bezeroak dendatik ateratzen direnean desinfektatu beharra bada, bezero gutxiago artatu ahal izango dogu eta, ondorioz, diru-sarrerak murriztu egingo dira; hori bai, ez dut uste zergak gutxituko direnik... Aurkeztutakoa Estatuko plangintza da, hala ere, ez daukagu argi erkidego bakoitzean azkenean zer gertatuko den... Gainera, neurri horiek ekainera arte izango dira? COVID-19ak gora egiten badu, atzera joango da? Umeek ez dute eskolarik izango, nola uztartuko ditugu dendan ordutegia eta seme-alaben zaintza? Ez dakit; dendariok bide berriak topatu beharko ditugu bezeroei kalitateko zerbitzua eskaini ahal izateko.

Artileak saltzeaz gainera, ikastaroak ematen dituzu. Egoera berrira egokitze-ko modurik izango duzu?

Momentuz, lekua dut dendan. Pentsatzen dut protokolo bat ezarri beharko dudala, eta mahai handiago bat ipini, ikasleen artean tarte handiagoa egon dadin. Era berean, talde bakoitzean gehienez lau ikasle egon ahal izango dira. Bestalde, egiten ditugun lanak ukitu egin behar dira; hau da, puntua ikusi behar dut, eta sumatzen dut azkenean, beharbada, puntua eskularruak jantzita egin beharko dugula. Dena dela, lehen adierazi dudanez, uste dut askotan informazio-bonbardaketaren eraginez desinformatuta gaudela: orain ez, orain bai... Nire ustez, sektoreka bereizi beharko gintuzkete, eta bakoitzari argibide zehatzak eman.

Eta ikuspuntu ekonomiko batetik, nolakoa izango da pertsiana berriro altxatzea?

Txarra, nirea ez delako funtsezko dena bat, aisia emateko denda baizik: egiten ditugun lanek erlaxatzen laguntzen digute, egunerokotasunetik aldentzen... Era be-

“Mankomunitateak kanp luke Txorierri osoko m



CAROLINA MANRIQUE |
Artile Artean Derioko dendako jabea

Denda txikiak dira koronabirusaren krisiak gehien zigortu dituen sektoreetako bat. Itxita ia bi hilabete eman ostean, neurri zorrotzak hartu beharko dituzte berriro irekitzeko. Carolina Manriquek Artile Artean denda zabaldutako irailean Derion, eta lehenengo pausoak ematen zebilela itxi beharra izan zuen.

rean, uste dut atzeraldi ekonomiko handia egongo dela eta langabetu asko egongo direla... Beldurrez nago ez ote naizen aurrera atera ahal izango.

Zein egoeratan zaude?

Zorionez, nire materiala ez da galkorra; hala ere, bada denboraldikoa eta uda-

garaiko materiala jaso barik nago. Bestela ere, diru-sarrerarik gabe, ez dakit alokairua ordaindu ahal izango dudana, ezta ura eta argindarra ere, hornitzaileei... Martxoan ozta-ozta egin nuen aurrera, baina zaila izango zait hurrengo hilabeteetan dena ordaindu ahal izatea.

aina bat sustatu beharko erkataritza berpizteko"

Espainiako Gobernuak eta Lanbidek laguntza batzuk onartu dituzte autonomoentzat. Zer deritzezu?

Laguntza jaso daiteke lanari uzteagatik eta alokairua, ura eta argindarra ordaintzeko. Zer deritzet? Bada, egia esateko, ez dakit. Alde batetik, jasotzen dugun informazio-bonbardaketa hain da handia, ezen funtsean desinformatuta baikaude; eta bestetik, denda txiki baten egoera eta handiagoa den negozio batena bestelakoak dira... Ikusiko dugu zer gertatzen den. Nik aholkulariaren bitartez egiten dut dena. Bestaldek, Derioko dendarien elkartearen harremanetan dago udalarekin, zer nolako laguntza jaso genezakeen jakiteko eta herriko komertzioa berpizteko kanpainaren bat aztertzeke.

Zure ustez, zer nolako neurriak hartu beharko lirateke?

"Ez dakit alokairua ordaindu ahal izango dudana, ezta ura eta argindarra ere, hornitzaileei..."

Nik uste dut Mankomunitateak Txorierri osoko merkataritza berpizteko kanpaina handi bat ipini beharko lukeela martxan. Gainera, udal bakoitzak ere tokiko dendariei laguntzeko neurriak hartu beharko lituzke. Ikusten ari garenez, momentu honetan benetan funtzionatzen duena tokiko merkataritza da, eta, nire ustetan, instituzio guztiek –Espainiako Gobernua zein Eusko Jaurlaritza barne– dirua inbertitu beharko lukete merkatariei laguntzen eta aholkua ematen eta herritarrak tokiko merkataritzarekiko sentikor bihurtzen.

Zazpi hilabete besterik ez dira dena ireki zenuela.

Lehen haurdunaldian atsedean hartzeago agindu zidaten eta puntua egiten hasi

nintzen entretenitzeko. Ondoren, ikastaro batzuk egin nituen. Urte askoan, saltzaile ibili naiz bisuteria-denda batean eta bertan kakorraz-lan ikastaroak ematen hasi nintzen. Langabezian gelditu nintzen eta senarrak eta Behargintzan lan egiten duen lagun batek animatu ninduten denda za-

baltzera. Nire denda izateko gogo-edo beti izan dudanez, proiektua egin nuen. Derion lonja egoki bat topatu, eta denda ipini nuen martxan: artileak-eta saltzeaz gainera, ikastaroak ere ematen ditut.

Nola joan zaizu?

Oraindik inbertitzen ari naiz soldata atera ahal izateko, baina ezin naiz kexatu. Harrera ona izan dut eta urrirako banituen ikasle batzuk. Bestalde, kartelen eta ahoz ahokoaren bidez, denda Txorierrin eza-gutxera ematen ibili naiz, eta, egia esan, ahoz ahokoak oso ondo funtzionatu du... Orain, berriro hasi beharko dut...

Mondragon Unibertsitatea

UNIBERTSITATE GRADUAK 2020/2021

LEARNING FROM REALITY

EKINTZAILETZA
Lidergo Ekintzailetza eta Berrikuntza
LEINN

ENPRESA KUDEAKETA
Business Data Analytics
BData

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza
myGADE DUALA

INGENIERITZAK
Mekatronika Ingeniaritza
MEKATRONIKA DUALA

HUMANITATEAK
Humanitate Digital Globalak
HDG

Baserritarrak urduri dagoz

t/a: Gaizka Eguzkitza

Pandemia inori ez jako ondo suertatu, baina baserritarrek urteko arorik garrantzitsuena gainditu beharko dabe, maiatzean, produktuak merkaturatzeko aroan hain zuzen be. Birusak ezjakintasuna zabaldu dau, eta horrek, urduritasuna. "Orain merkaturatzeko garaia dator eta ikusiko dogu zelan doazan salmentak. Baserritarrak urduri gagoz, ezer ez dakigulako: zer gertatuko dan, birusa nozko geldituko dan gugaz... Ez dakigu zer gertatuko dan datorren astean be. Dana aldatzen da egun batetik bestera", esan dau Jon Lekerikak.

Beste sektore batzuek esan dabe laguntza beharko dabela eta ziur asko baserritarrak ez dira salbuespena izango. "Aldundiagaz egin dogu berba eta aitatu deuskue dirulaguntzak banatuko dabezala, baina oraindik ez dakigu zenbatekoak izango diran. Lehenengo sektoreak be ezin dau oraindik zehaztu zenbat galduko dauen. Oraindik goiz da ondorioak atarateko". Lezamarraren esanetan, lehen sektorean hainbat azpisektore dagoz eta hori be kontuan hartu behar da, benetako kaltea noraino helduko dan jakiteko.

Txorierrin hainbat nekazari doguz eta eurak be badabilz koronabirusaren krisian murgilduta. Maiatzean baserriko produktuak merkaturatzeko kanpaina nagusia egiten da eta baserritarrak urduri dagoz, Jon Lekerikak esan deuskun moduan. Lezamarrak Lorra Bizkaiko nekazarien eta abeltzainen kooperatibaren presidentea da.

"Orain merkaturatzeko garaia dator eta ikusiko dogu zelan doazan salmentak"

"Txakolingileak txarto dabilz pasatzen, produktua batez be tabernei eta jatetxeei saltzen deuseelako eta horreek itxita dagozalako".

Beste batzuk, oster, ez dagoz hain kezkatuta. Lekerikak bere baserria bera jarri deusku adibidetzat, baita Interneten bidez saltzen dabezanak be. "Guk

tomateak, letxugak eta piperrak ekoizten doguz eta momentuz arazo handirik ez dogu euki: tomateak eta letxugak kontsumitzaile arruntei saltzen deuseguz eta eurek jarraituko dabe horreek biak jaten. Piperrak, oster, batez be ostalaritzara bideratzen doguz eta ziur asko gitxiago salduko dogu, edo prezioa nabarmen jaitsi beharko dogu. Oster, online saltzen dabezanen salmentek gora egin dabe".

Lekerika baikor agertu da etorkizunari buruz galdetu deusagunean. "Azokak itxi egin dira eta horrek kalte egingo deusku, baina Bizkaiko baserriak txikiak gara eta, ondorioz, beste lekuetako baserritarrek baino errazago salduko dogu gure produktua, azken baten produktu kopurua be txikia dalako. Adibide bat jarriko dot:

Betiko baserritarra

Jon Lekerika lehen sektorearen bozeramaile proposa da, gitxienez Bizkaian. Batetik, Lorra kooperatibaren presidentea dalako; bestetik, bizitza osoa emon daualako baserrian beharrean eta hainbat egoerari aurre egin behar izan deusolako. Basalbeiti baserria Jonen aitak jarri eban martxan, Goitoltza auzoan, orain dala 45 urte. Hamabost urte geroago, Jon, Carlos eta Alberto Lekerika Andikoetxea anaiek jarraipena emon eutsoen aitak martxan jarritako negozioari. Gaur egun, 15.000 metro koadroko ustiategiak bost negutegi dauzka: kristalezko hiru, loreak eta tomateak ekoizteko; eta plastikozko bi, piperrak eta letxugak landatzeko.



umeez ez dabe eskolan bazkaltzen, eta merkatu hori itxi egin jaku, baina orain familia guztiak gehiago bazkalduko dogu etxean eta barazkiak, fruta eta abar gehiago erosiko doguz. Hau da, orekari eutsiko deusagu".

Errutina antzekoa

Birusaren eragina ezin da momentuz aztertu lehen sektorean, baina Lekerikak esan deusku pandemiak aldaketa gitxi ekarri deusela nekazariei. "Lehen sektorea funtsezkoa da eta, ondorioz, muga gitxi jarri deuskiez. Batzuk etxean egongo dira, baina guk lanean jarraitzen dogu baserrietan. Eta gure errutina antzekoa da: guk ez dogu domekarik, ez barikurik, egun guztiak diralako antzekoak", esan deusku Lekerikak.

Lezamarrak aitatu dau normalean kontu handiz ibiltzen dirala, higieneari eta garbitasunari behar bezalako garrantzia emoten deuseela. Eta orain, are gehiago. "Hiru langile doguz eta Eusko Jaurlaritzak emondako segurtasun-argibideak eurei be emon deuseguz: batez be, kutsatzeko arriskua murrizteko. Ganera, egiaztagiria emon deusegu langileei, lanera etorri ahal izateko. Lan egiteko, normalean eskularruak erabiltzen doguz eta garbitasunari arreta berezia eskaintzen deusagu. Maskarak be erabiltzen doguz gaur egun".

Jon familiagaz eta amagaz bizi da baserrian. Han be badauka lantokia. Anaiak eta langileak bertan batzen dira egunero lan egiteko. Zorionez inork ez dau osasun-arazorik euki. "Gure kezka nagusia ama da, adinekoa dalako. Ganerakook ondo gagoz, bai senideak, bai langileak. Bakotxa bere etxean dago eta bakarrik batzen gara lan egiteko, segurtasun-neurriak beteteaz beti be. Etxean gelditzeko agindua emon zanean, langileei lan egitera ez etorteko esan geuntsen astebetean, garai hatan lan handirik ez egoalako. Gero bai, gero etorri ziran, eta orokorrean, oso jarrera ona erakutsi dabe", adierazo dau Lekerikak.



Whatsappela buruan Informatikatik inkonformatikara

t: Juan Luis Goikoetxea Arrieta / a:

Whatsappa buruan dela bizi gara, baina buru barruan. Eta ez bera bakarrik, Messenger, Instagram, Twitterreko txioak ere hortxe dira-eta. Inkonforme hitzak, berriz, esan gura du, norbait ordena politikoa, sozialean, moralean, estetikoan, ez dagoela ados. Guk inkonformatikoa deitzen dugu jarrera hori.

Informazioaren gizartean bizi gara, sare sozialek garrantzi handia duten zibilizazioan. Hainbeste albistek gainezka egiten digu. Ez dugu astirik den-denak irensteko, hausnartzeko. Badirudi Babelen dorrean bizi garela. Informazio superugariaren aurrean, baliteke uste izatea hobeto informaturik gaudela, baina ez da egia.

Edozein estatutako albistegien atzean, edo Google edo Applen ostean, interesak, talde-irritziak, dolarrak ezkututzen dira. Guk albistegien

kutxari, kartoia, papera, plastikoa kendu behar diogu, barruko egia aurkitzeko. Geure iritzia eduki behar dugu, geure kriterioak telebista ikusten jartzen garenean.

Whatsappak, bestalde, garrantzi oso handia du sare sozialen artean. Deitu sare-sozialak deitzen dira, nahiz-eta, gaurkoz, sareok negozio-sareak diren, ez medio sozial edo komunitarioak. Hau da, sare sozialek –sozial izenari eusteko– enpresen edo estatuengandiko independentzia bilatu behar dute, ez diru-pilaketa hutsa.

Benetako sare sozialek, gaurkoz –salbuespenak salbuespen–, herri-aldizkarietan, irrati ez komertzialetan-eta aurkitzen ditugu. Halako aldizkariak direla-eta –AIKOR! kasurako–, hauxe argitaratu du Txema Ramirez de la Piscina: "Zenbat-eta kazeta lokal gehiago izan, partehartze politikoa-ren maila eta aniztasun politikoa ere aberastu egiten dira".

Azken batean, Whatsappeldun izateko, behar da burua argi eta ideiak garbi, euskaldunok hamaika ardi baino ez zarete dioskunari, artaldea garelako erantzuteko.



Sendatu
Fisioterapia
Liliana Diaz Charry
elkargotza-zk. 992

Aretxalde, 68 behea
48196 LEZAMA

vidicha@yahoo.com

688 763 457



TABERNA
GAZTEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com





Musikea konfinamentuan

t: Itxaso Marina / a: Mixerabliak

Mixerabliak musika taldeak *Arren Erre Nazazu Hiltzean* kantearen bideoklipa egin dau konfinamentuan. Kantea Willie Nelson Estatu Batuetako country abeslariaren *Roll Me Up And Smoke Me When I'm Dead* abestiaren euskarazko bersinoa da, eta taldekide bakotzak bere zatia grabatu dau etxean, gero bideokliparen montaketea egiteko. Lana taldearen YouTube kanalean eta gizarte-sareetan dago ikusgai.

Mixerabliak taldea Larrabetzuko eta inguruko sei mutilek osatzen dabe: Aratz Astobieta (ahotsa), Urdin Baraiazarra (mandolina, gitarrea eta koruak), Lander Bilbao (gitarrea, biolina eta koruak), Gorka Errilla (gitarrea eta koruak), Julen Martinez (baxua eta koruak) eta Peru Berasategi (bateria). Taldea orain dala hiru urte sortu eben eta, Astobietak azaldu deuskunez, folk eta rock taldeen kanten bersinoak egiten dabez, euskeraz eta abestiei euren ikutua emonda. Etxealdian, *Arren Erre Nazazu Hiltzean* kantearen bideoklipa grabatu dabe. "Ikusi dogu beste talde batzuk bideoak grabatu dabezala, konfinamentuan egon arren, zerbait egin ahal dala erakusteko, eta guk be bideo bat egitea erabagi genduan", esan deusku. "*Arren Erre Nazazu Hiltzean* Willie Nelsonen *Roll Me Up And Smoke Me When I'm Dead* abestiaren euskarazko bersinoa da eta askotan jo dogu kontzertuetan. Eta zergaitik kanta

horren bideoklipa? Bada, geunkazan baliabideak kontuan hartuta, beharbada, errazena zalako grabatzen".

Eskuko telefonoa erabilia, taldekide bakoitzak etxean grabatu dau bere lana. "Ahalik eta lekurik isilena topatu behar izan dogu etxean. Horrek alde txarra dau; barbarako, ahotsa grabatzearen eskuko telefonoak isiltasunaren frekuentzia be grabatzen dau, eta bateriak zarata handia sortzen dauenez, interferentziak izaten dira...". Beraz, taldekide bakoitzak grabatutako zatia txukundu egin behar izan da, eta horren zein bideoklipa muntatzearen ardura taldekideetako batek izan dau, horretarako programa bat erabilia. "Zerbait ezbardina gura izan dogu eta gure ikutua emon deusagu bideoklipari. Baserriko kutsua ipintzearen, animaliak be sartu doguz; dibertigarria iruditu jaku. Jenteari gustau jako eta mezu positiboak jaso doguz. Gizarte-sareetan be asko ikusi eta partekatu da".

Kontzertuak bertan behera

Mixerabliak taldeko kideei musikea gustetan jake, eta musikea joteko eta ondo pasatzeko batu ziran orain dala hiru urte lokalean. Bi urte beranduago kontzertuak emoten hasi ziran. "Nahiko

ondo ibili gara kontzertuakaz; halanda be, orain arte ez dogu IFKrik izan eta ezin izan dogu kontratupeko kontzerturik eskaini; jaieten, adibidez.

Hori konpontzen genbiltzala osasun-larrialdia hasi zan eta kontua gelditu egin da. Era berean, hiruzpalau kontzertu itxi behar izan doguz bertan behera".

Kontzertuak eta kultura ikuskizunak beste modu baten gozatzen ikasi beharko da COVID-19ak sortutako alarma-egoera irauten dauen bitartean. "Guk, esaterako, aire zabalean emoten doguz kontzertuak eta horreetan bakarrik 400 persona egon ahal izango dira, eta eserita, gainera. Orokorrean, zuzeneko ekintzek galduko dabe, kontzertuak, antzezlanak edo bertsolariak izan: zuzeneko feedbacka eta beste bide batzuenen -Internet kasu- bestelakoak dira. Kulturako jentea nahiko txarto ibiliko da, hainbat ekimen ezin izango baitira aurrrera eroan".

Bien bitartean, Mixerabliak taldeak kanta barriak landuko dauz. "Bersino barriez ganera, gure abestiak be sortzen saiatuko gara, eta horreek kontzertuetan jo. Gastuetarako dirua lortzeko, *merchandising*-a be atarako dogu".



Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.

“Egun on, printze eta printzesak”

t: Einer Larrabeiti / a: cartelera.elpais.com

Abiapuntu bardinean gagoz aspaldiko partez gizaki guztiok eta gure ama, natura. Halan, hierarkiaren eta egozentrismoaren kultura atzean itxiteko garai aparta da, *sortuz ta sortuz gure aukerak*. Berrogeialdi honetan, bada aprobetxatzen dabilenik, baita aprobetxatzearen aurka altzau danik be. Bada etxean hartu-emon gatazkatsu bat hobetzeko lanketa egiten dauenik, bai eta egun urdin eguzkitsuetan pertsianak ixten dabezani be. Bildurra, haserre, frustrazioa, ezjakintasuna, maitasuna. Guzti horreek dabilz borborrean eta inoz baino gehiago nabaritzen ditugu ziurrenik. Egoereagaitik da, pentsatu geinke. Baina zintzotu gaitezana: atera bada, hor egoalako da. Gudan, ez egoeran.

Aspaldidanik behatu izan da karraderan bizi garela hein handi baten, begirada beste gauza batzuetan jarrita. Bitartean, gaixotu, estresa sufridu eta gure hartu-emonak zimeldu egiten ditugu. Eta orain, plausta. Geldi. Natura garbitzen ari dan bezalaxe, geu be, ama lez, holan gabiz. Barruan dogun hori sentitzen, gure jokaerea eta jarrerak behatzen, ohartzen, onartzen. *Saiatu gaitezan ikusten, sasi zikiûak behin-erreta bide on bat aukeratzan.*

Bestalde, errealidadea da ez dakigula ziurtasunez honek guzti honek nora eroango gaituen, eta ez gagoz ohituta “kontrolpean” berbea gure egunerokoan ez eukitera. Halanda be, ez dozu zertan horretan burua galdu. Munduko mutur baten zein bestean, esnatzeko deia momentu berean heldu jaku. Ipuin honek erakusten dauen moduan, gure energia egin ahal dogun horretan jarri ahal dogu,

egoera definitzen ibili beharrean (norbaitek hau errealista ez dala badinotzu, lasai, jarraitu, bere bildur edo gogotik berbaz dabil eta eskubidea dauka be).

Bazan behin, adineko emakume baserritar bat herri txiki eta txiro baten bizi zana. Bere auzokoen ustez, baserritarra zorionekoa zan zaldi bat eukalako soloa eta landak goldatzeko. Egun baten, zaldiak ihes egin eutsan mendira. Herrian jakin zanean, auzokoak baserritarraren joan ziran kontsolatzera. “Ze zorte txarra”. Baserritarrak, ordea, hauxe erantzun eutsen: “zorte txarra, zorte ona, batek daki”.

Egun batzuk beranduago, zaldia bueltatu egin zan hainbat zaldi basatirekin batera. Auzokoak, baserrira hurbildu ziran,

oraingoan bere zorte onagaitik zoriontzeko asmoz. “Zorte ona, zorte txarra, batek daki”, erantzun eutsen adineko emakumeak.

Bere semea zaldi basati horreetariko bat mantsotzen saiatu zan, baina jausi eta berna bat apurtu eban. Barriro be, auzokoak baserritarraren zorte txarra azpimarratu eben, eta emakumeak, barriro be, “zorte txarra, zorte ona, batek daki” erantzun eutsen.

Beranduago, erreklutamendu militarreko ofizialak agertu ziran herrian, armadarako gazteak batzeko. Baserritarraren semea ez eben eroan hanka apurtuagaitik eta, zelan ez, herritarrek emakumearen eta semearen zorte onaz berbetan hasi ziran. Honek, zelan ez, “zorte ona, zorte txarra, batek daki”.



ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Bizkargi Kafetegia
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margo-tu eta moztu ahal dituzu.
a: www.lululataupe.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Baginen, *Euskal Herriko historia emakumeen bitartez* (Txalaparta) Cira Crespo Cabillo.

–*Indarkeriaz*, (Katakrak liburuak) Hannah Arendt. Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun.

–*Sano erradikal* (Alberdania), Isabel Diaz.

–*Ene baitan bizi da* (Elkar), Maddi Ane Txoperena. X. Gazteluma saria

LITERATURA: GAZTEAK

–*Gizajo baten egunkaria. Ihesaldia* (Alberdania), Jeff Kinney.

–*Tximaokerren pikondoa* (Txalaparta), Ana García Castellano.

–*Zuhaitz bat* (Denonartean), Rodrigo Mattioli. Apila saria.

–*Eltxo batek ziztutzen badizu* (Pamela), Christian Inaraja, Jordi Gastó.

–*Ama-alu-lur* (*Sorgin baten ametsak...*) (Denonartean), May Gorostiaga

Sudoku

			4					8
				7				
	9		1			6	7	2
				2	1			9
	8		7					4
		7	9				6	
		6	2		7			1
				5			8	
9	2							

7	5	4	8	1	9	3	2	6
9	8	2	6	5	3	1	7	4
1	6	3	7	4	2	9	5	8
5	9	8	4	3	6	7	1	2
4	2	1	5	9	7	6	8	3
6	3	7	1	2	8	5	4	9
2	7	9	3	8	1	4	6	5
3	4	6	2	7	5	8	9	1
8	1	5	9	6	4	2	3	7

 **sarraila-denda Txorierri**
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

948 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Unkiola, 4. lorja
48160 Deno

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXAKAK

lehenengo markak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierri etorbidea, 25-3.N. 48180 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com



BERBALAGUN

Euskaraz berba egiteko eta bultzatzeko taldeak

Jarraitzen
dugu euskaraz egiten
taldeko bideodeien
bidez

Ikasi

Lagundu

Ondo pasa

MINTZATU!!!

Erabili

Berbaz berba bidea EGITEN

Eman izena! 635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea:



Gure hezkuntza-eskaintza

BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredu)

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industrial
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola




POLITEKNIKA IKASTEGIA
TxORIERRI
S.COOP.

Hartu zure etorkizunaren agintea

Kostuaren eta zerbitzuaren
arteko erlazio egokiena

#40 urte, milaka txori



Ate irekiak

Zatoz ezagutzera

Derion, Bizkaiko Parke Teknologikoaren ondoan gaude. Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu.



94 403 40 60
www.txorierri.net



Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TxORIERRI
S.COOP.

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 - 48160 DERIO - Tel.: 94 403 40 60 - www.txorierri.net



HEZKUNTZA KOOPERATIBA INTEGRALA
Familiak, Langileak, Enpresak eta Erakundeak
zuzenean parte hartzen dute ikastolaren
kudeaketan.